


## Nafarroako independentziaren azken defendatzaileak omenduko dira igandean Amaiurren

Memoria historikoa iratzartzeko helburuarekin omenaldia eskainiko zaie asteburu honetan Amaiurren Nafarroako independentziaren azken defendatzaileei. Izan ere, 475 urte beteko dira aurten Amaiurko gaztelua defendatzen zuten berrehun nafarrek, urtebetez eutsi ondotik, Gaztelako Errege Katolikoek tropen aitzinean errenditu behar izan zutenetik. Eraberean, Amaiurko monolitoa lehen aldiz ezarri zutenetik 75. urteurrena beteko da eta, dinamitaz bota ondotik, orain 15 urte berriz jarri zutela ere gogoratuko da. Horretarako, hainbat ekitaldi prestatu dituzte Gazteluko elkarteak eta Amaiurko herriak.

4



Ramon APEZTExEA:

### San Martin Eskolako zuzendaria

Logse edo hezkuntza erreformaren ondorioz San Martin eskola itxi egingen da behin betikoz. Azken 23 urteotan eskolak egindako ibilbideaz itaundu dugu Ramón, eta baita orain eskualdean gelditzen den ikasketak eskaintzaz ere. 3

### 6 Iritzia: Atzerrirat bertze hizkuntza bat ikastera

Ikasten ari diren hizkuntza hobetzeko eta praktikatzeko atzerrira jotzen dute hainbat ikaslek. Leitza, Sara eta Berako hiru gazteren iritzia bildu dugu.

### 27 Ana VILLORIA: Iruiritako margolaria

29 koadro zintzilikatu ditu Iruiritako batzarre aretoan.

### 28 Unai BARAZABAL: Azpilketako txirrindularia

Lehen laisterkaldia irabazi berri du Sigmako taldekideak.

### TTIPI-TTAPA honekin batera: Elizondoko bestak


Gehigarria erdialdean.





lizondoko  
PINGI arropa  
endan,  
rrate batera,  
lDeko  
ESKONTUA  
zanen  
uzu  
rtikulu  
uzietan...

# TTIPI TXARTELAekin dirua irabaziko duzu



eta  
lizondoko  
ANSIÑENA  
uto-tailerrean  
lDeko  
ESKONTUA  
lio aldaketan,  
ta %20ko  
ESKONTUA  
eno  
astilletan.  
ta horrela  
ertze 45  
omertzio eta  
erbitzuetan.

**ESKATU BAT**

## DESKONTUAK

### AISIALDI AKTIBIDADEAK

BKZ . . . . . Bertiz . . . . . %10

### AUTO TALLERRAK

MENDAU MOTOR . . . . . Doneztebe . . . . . %10 Kubiartetan  
SANPI ARAGON . . . . . Doneztebe . . . . . %10 Kubiartetan  
PEDRO GARMENDIA . . . . . Elizondo . . . . . %20 Olio aldatzeak  
DATUGELAY . . . . . Elizondo . . . . . %15 Bateria + amartiguadoreak  
SANSIÑENA . . . . . Elizondo . . . . . %15 Olio aldatzeak %20 Frenoak  
LAGOSTA . . . . . Irurita . . . . . %100 Pre-ITV  
ZALAIN MOTOR . . . . . Bera . . . . . %5 Errekanbiotan

### AUTO-ESKOLAK

SEMPER . . . . . Bera . . . . . %10 Matrikulan

### ARGAZKI DENDAK

GOIKO . . . . . Bera . . . . . %10 Errebelatze eta arg. materialak  
AYLA . . . . . Bera . . . . . %10 makinetan izan ezik  
MENA . . . . . Doneztebe/Elizondo . . . . . %10  
ZALDUA . . . . . Doneztebe/Elizondo . . . . . %10

### ARROPA DENDAK

EDURNE . . . . . Bera . . . . . %10 (5.000 Patatik. aurrera)  
SAIOA . . . . . Doneztebe . . . . . %10  
J.J. PICABEA . . . . . Doneztebe . . . . . %10 Galtza marka batzuetan ez  
TXIRRISTA . . . . . Doneztebe . . . . . %10  
KAMAMILA . . . . . Doneztebe . . . . . %10  
PICABEA BOUTIQUE . . . . . Doneztebe . . . . . %10  
IPINGI . . . . . Elizondo . . . . . %10  
COCOS . . . . . Elizondo . . . . . %10  
KATTALINGORRI . . . . . Elizondo . . . . . %10  
FANTXIKE . . . . . Elizondo . . . . . %10 (5.000 Patatik. aurrera)

### EDARI BANATZAILEAK

MANUEL TABERNA . . . . . Bera . . . . . %3

### ELEKTROGAILU DENDAK

MARIXUS . . . . . Lesaka %20 Elektrogailuetan %30 Antenetan  
ALTZURI . . . . . Lesaka %5 Elektrogailuetan %20 Mat. elek.  
RADIO BIDASOA . . . . . Bera . . . . . %10 Deskontu baleak

### ESTETIKA ZENTRUAK

AMAIA . . . . . Doneztebe . . . . . %5 Kosmetikan %10 Oparietan  
BEATRIZ . . . . . Elizondo . . . . . %10 (5.000 Patatik. aurrera)  
MARIAN . . . . . Lesaka . . . . . %10

### KIROL DENDAK

IPARLA KIROLAK . . . . . Elizondo . . . . . %8  
ZELA KIROLAK . . . . . Bera . . . . . %10  
AGARA KIROLAK . . . . . Bera . . . . . %10 Kirol Artikuluetan  
M<sup>a</sup> LUZ SPORT . . . . . Bera . . . . . %10 Arropetan. Kirol artikuluak ez.

### LENTZERIAK

M<sup>a</sup> CRUZ . . . . . Doneztebe . . . . . %10 (5.000 Ptatik. aurrera)  
MAITE . . . . . Elizondo . . . . . %10 (5.000 Ptatik. aurrera)  
DENE . . . . . Lesaka . . . . . %5 Kortseterian %10 Lentzerian

### LIBURUDENDAK

NAFARPRESS . . . . . Elizondo . . . . . %10 Liburu eta ikas-materialak  
LEGARRA . . . . . Lesaka %10 Lib. + ikas-matez (1.000 Pta.)

### MOBLEDENDAK

AMAIUR ALTZARIAK . . . . . Doneztebe . . . . . %6  
LEIZA . . . . . Elizondo . . . . . %10 Sukalde mobletan

### OPTIKAK

OSTARGI . . . . . Bera . . . . . %10

### ZAPATADENDAK

ALDI ROZAS . . . . . Bera . . . . . %10  
GOÑI . . . . . Elizondo . . . . . %10 (2.000 Ptatik. aurrera)  
B. ALMANDOZ . . . . . Elizondo . . . . . %10 (3.000 Ptatik. aurrera)  
NEREA . . . . . Doneztebe . . . . . %10  
OSTIZ . . . . . Doneztebe . . . . . %10

### ZURGINAK

**634100**

## DATUAK.....

❖ Ramón Apezetxea, Oronozko San Martin eskolaren sortzaile izan zen Juan Bautista Irazoki apezarekin batera.

❖ Azken 23 urteetan zuzendari lanak egin ditu Goizuetan jaio baina egun Almandozen bizi den apez honek.

❖ Orain, Logse erreformaren ondorioz zentrua behin betikoz itxi egingo dute.

❖ San Martin eskolan 1.200 ikasle baino gehiagok estudiatu dute urteotan.

❖ Oihangintza, sukaldaritza, edo mekanika bezalakoak ikasteko Iruñearaino joan beharko da hemendik aitzinera.

TESTUA:  
ASIER GOGORZA  
ARGAZKIA:  
KARMELE TOLOSA

✍ **Ramón APEZETXEA** San Martin eskola zeneko zuzendaria

# “Hezkuntza erreformarekin zona hau arras pobretua geldituko da”

## ERREFORMA DELA ETA AURTEN DESAGERTUKO OMEN DA SAN MARTIN ESKOLA.


Bai; Logse delako-  
ren ondorioz Nafarroa  
guzian FP1 edo lanbide  
eskola zena kendu du-  
te eta guk hori ematen  
genuenez, heldu den  
kurtsotik aitzinera ez da  
klaserik emanen. Guk  
hostalaritza, oihangin-  
tza, mekanika eta ho-  
rrelako ikasgaiak ematen  
genituen; aste bat  
eskolan eta hurrengo  
etxean praktikak eginez,  
bainan orain sistema ho-  
ri kendu dute, eta prak-  
tikak enpresatan egin  
beharko dira nahita-  
nahiez.

## ZENBAT URTEZ FUNTZIO- NATU DU ESKOLAK?

Orain dela 23 bat ur-  
te hasi genuen proiektu-  
a bi apezten artean,  
Juan Bautista Irazoki eta  
nerone. Ikusi genuen  
hemengo neska-muti-  
koak herriko eskolan  
bukatu eta etxean geldit-  
zen zirela, lana zela,  
gogorik ez zela...Eta  
uste genuen lanerako  
prestakuntzarik gabe  
geldituko zirela, eta he-  
rrietako bizitza ere po-  
bretuko zuela horrek.

## ZENBAT IKASLE PASA DIRA DENETARA SAN MARTIN ESKOLATIK?

1.200 ikasletik goiti  
izan ditugu. Forestala  
ematen hasi ginenetik,  
gehienak kanpokoak.



«Hurrengo kurtsotan ez da klaserik emanen San Martin eskolan».

Niretzat inportanteena  
da 1.200 hoietako ge-  
hien-gehienak deusegin  
gabe geldituko zirela,  
eskola honengatik eta  
ibili garen bezala ibili  
garelako ez balitz.

## NOLA FINANTZIATZEN ZEN?

Hau zentro kontzer-  
tatua zen, hau da, pri-  
batua; laguntza parte bat  
Nafarroako Gobernuak

ematen zuen, gero ikas-  
leek pagatzen zutena  
(erresidentzia), eta udan  
koloniek lan eginez  
ateratzen genuenarekin  
moldatzen ginen nola-  
bait. Irakasleen solda-  
tak eta zentrua finantzia-  
tzeko 3 milioi soilik  
eman ziguten iaz.

## NOLA IKUSTEN DUZU ORAIN ZONALDEAN GEL- DITZEN DEN IKASKETA ESKEINTZA?

Erreformarekin zo-  
na hau arras pobretua  
gelditzen da. Orain ar-  
te 12 espezialidade edo  
gehiago ematen geni-  
tuen hemen. Orain fo-

restala eta agropekua-  
ria egiteko Atarrabiara  
joan beharko da. Baina  
nola joanen dira ikasle-  
ak hango erresidentzi-  
ra hilabetean 45.000 pta  
kobratzen badute, guk  
urteko 66.000 eskatzen  
genuen bitartean? Nik  
esan nien Gobernuak  
fabrika edo tailerretako  
lanei bakarrik begira-  
tzen dietela, eta hemen-  
go errealitatea ez dute-  
la kontutan hartzen. Ja-  
kin nahi nuke zer egi-  
nen den eskola hauek  
desagertzera, inguru ho-  
netan dena basoa, lurra  
etaazienda izanik...

► *“Jakín nahi nuke zer egingen den eskola hauek desagertzera, inguru honetan dena basoa, lurra eta azienda izanik...”*

**1522ko uztailearen 19an burutu zen Amaiurko azken borroka. 1922an oroitarria eraiki zen eta bederatzita urte beranduago dinamitaz bota zuten. 1982an, azkenik, oroitarri berria inauguratu zuten bigarren aldiz. Beraz, borrokaren 475. urteurrena, lehen oroitarria egin zeneko 75. urteurrena eta bigarren inaugurazioaren 15. urteurrena ospatuko da igande honetan, Gaztelu elkarteak eta Amaiurko herriak antolatuta. Nafarroako independentziaren azken defendatzaileei omenaldia eskaini nahi zaie, bidenabarkoan euskaldunen memoria historikoa iratzarritz, «pentsatzen dugulako Nafarroaren pasarte historiko garrantzitsua izanik, ez zaiola eman behar bezainbateko aipamena» antolatzaileen ustez.**

TESTUA: AITOR AROZENA



**Juan M<sup>o</sup> ALEMAN eta Pello ETXEBERRIA**

Ekitaldien antolatzaileak

**«Gaztelu mendiko oroitarria euskal askatasunaren sinboloa bihurtu da»**

**1922an oroitarri bat eraikitzearen aldeko ekimenak sortu ziren, nola eraman zen aitzinera asmo hura?**

Lehen proposamenak Juan de Iturralde y Suit eta Arturo Kanpionengandik sortu ziren 1908an. Urte batzuk beranduago, 1920an, Julio Aladill, Nafarroako Monumentu Batzordearen buru zenaren proposamenaz Diputazioak proiektua onartu zuen. Pentsak, orohar, bat egin zuten ekimenarekin. Diru bilketa es-

kearen bitartez egin zen eta Nafarroa eta bertze hiru herrialdeetako Diputazioek eta hainbat herrietako udal, elkarte, ikastetxe eta ospeko jendeak eskaini zuten dirulaguntza. 1921an Victor Praderak sua piztu zuen hitzaldi batean, traidoreak omendu behar ote zituzten galdezterakoan. 1922an izan zen, halere, inaugurazioa. 1931n, oroitarria suntsitua izan zen, inoiz argitu ez den ekintza izanik, baina garbi dago Praderaren eztenkadek eragina izan zutela erizpideak nahasterakoan.

**Eta gero berreraikitzea. Nola izan zen prozesua?**

Ekimena herriko gazte talde bategandik sortu zen, 1976ko Baztandarren Biltzarrean karroza erreibindikatibo bat ateraz. Aitzinetik, laguntzak, aholkulariak, teknikoak bilatzen joan ginen eta 82an gauzatu zen oroitarri berria, lehengoaren probextu zitezkeen harriak erabiliz.

**Zer irudikatzen du gaur egun oroitarri horrek?**

Batzutan gertatzen da ekintza batek kontrako eragina izaten duela eta hori da bota zutenean gertatu zena. Pentsak egindako salaketen bidez ia ezagutzen ez zen xokoa sekulako oihartzuna hartuz joan da eta gaur egun, historia ezagutuz joan den neurrian, Gaztelu mendian dagoen oroitarria euskal askatasunaren sinbolo bat bihurtu da. Hainbat erakunde, karrikek... bereganatu dute Amaiur izena, harrotasun haundiz.

# Amaiurko borroka gogoan




**g**

o Errelikoen k, Al-Dukea utela, uztai-baditu afarro- esuma, rregeei ia ken- Koroskar- uz, Cata Juan rroako

erregeak kanporatu zituzten. Bidenabarkoan, moralki, inbasioa bultzatu zuen kardenalak, sekular sobera argitu ez zen Aita Sainduaren bula baten bidez. Konkista militarra iraunen duen hurrengo hamar urteetan, independentziak nafarrek zenbait saiakera eginen dituzte lurraldea berreskuratzeko. Azkenekoa, 1521ean eta lurralde guzira berreskuratzea lortu zuten. Gaztelako ejerzitoak bere indar guziaz Nafarroan pi-

latu zituen eta Noingo borrokan garaitu zituzten nafarrak eta beraien aliatuak. Milaka hildako izan ziren. Halere, oraindik berrehun nafarrek osatutako taldea Amaiurko Gazteluan gotortu zen. Tartean zeuden Xabierko San Frantziskoren bi anai, Migel eta Juan de Jatsu. Denak Medranoko Jaime Velaz jaunaren gidaritzapean. Urtebetez tinko eta sendo eutsi zioten gaztelar eta beaumontiar armaden erasoei, jatekorik eta lagun-



tzarik gabe kapitulatu behar izan zuten arte. Iruñeko gartzelera preso eraman zituzten guziak, eta bertan pozoinduarik hila ziren Jaime Velaz eta Luis bere semea. Gaztelua, zimentu eta guzi, suntsitu zuten.

### «Arras jende gutik ezagutzen du historia»

Honeraino gertaera historikoa. Aste hondar honetan ospatuko diren ekitaldien antolatzaileek beraiek onartzen dutenez, «arras jende gutik ezagutzen du, ezta amaiurtarrek beraiek ere. Ez daukagu historia barneratua». Euskaldunon memoria historikoa irartzartzea da, hain zuzen, beraien helburuetako bat. «Nafarroaren eboluzio historikoa hainbertzeko garrantzia izan zuen Noaingo gatazkaren jarraipena eta atal haren bukaeratzat joenez. Nahiz eta ondorio erabakiorrenak Noain eta Eskirotzeko sarraskietan gertatu, Amaiurkoak izugarritzko karga testimoniala

la gordetzen du, gaztelar ostean aurrean etsitu zuen azken gotorlekua izan zelako», Juan M<sup>a</sup> Aleman eta Pello Etxeberriaren arabera. Aldez aurretik galdutzat jo zitekeen borroka hura «ideologikoa» izan zen, antolatzaileen ustez. «Erresumaren lurraldetasuna eta burujabetasuna defendatzen zen. Bertzalde, Nafarroako erregearen zilegitasuna eta gudarien leialtasun, ohore eta duintasuna salbu gelditzen ziren, ez zutelako onartzen gaztelar erregetza. Elementu guzti hauek, korapilaturik, baldintzatzen zuten 200 gudari haien grina. Egoera larri haren aitzinean bizitza emateko prest zeudenak, benetan leindako heroiak bihurtu direla erran dezakegu».

Guzti hau, besta giroan gogoratuko da asteburuan Amaiurren. Xedea oroitarrian ageri dena izanen da: «Nafar askatasunaren alde Amaiurko etxarrian borroka egin zuten guzti guzti betiko argia». ■



Nafarroako erregeen izendapena, ezkutu baten gainean egiten zen. Eneko Aritza (824-852) izan zen lehena.

Ezkerrean, Antso Haundiaren lurraldeak, Nafarroako Erresumak izan zuten hedaturarik haundiena. ■

ISP Juainas PAUL Historialaria

## Independentzia, Euskal Herria... hitz potoloegiak garai haietarako



Gaztelu bat. Gotorlekua. Erdi Aroa bukatutzat eman da. Aro Modernoaren hasieran gaude. Estatu handiak

sortzen ari dira: Frantzia, alde batetik; Espainia, bestetik. Nafarroa, erdian eta biekin harremandurik. Baina Nafarroa ez da bat. Herriak agintarien politika jasaten du. Politikoak –jauntxo feudalak orduan– eta erregeak, berriaz, euren interesak aldarrikapen politiko-erlijiosoaz estaltzen dituzte, gerrarako deiak hedaturik. Agramontesak eta beaumontesak 1450.az geroztik, gutxienez, borrokan dira.

Barne eztabaida dugu: norik agindu, manatu eta hurrupatuko duen erreina.

Erret boterea ahula da, frantses jatorriko dinastiak Viannako Printzea eta bere aitaren arteko gudaren herentzia jaso baitu. Jauntxoek laguntza eskuratu beharko dute, ohoreak eta pribilegioak areagotuz. Talde bakoitzak kanpo aliantzak bilatzen ditu.

Gaztelarrak indartsu daude. Errege Katolikoak batasun antzeko batean bildu dituzte Aragoi eta Gaztela. Beaumontesei haiek eskaintzen duten bidea, posibilitate ekonomikoak eta etsaien suntsipena interesatzen zaie. Irabazle suertatuko dira.

Agramontesak, euren alde, Frantziarekiko lotura handiagoak dituztelarik, agintean zen dinastiarekin bat egiten dute. Galtzaileak suertatuko dira eta, ondorioz, Nafarroako zatiketa gauzatuko da.

Independentzia, euskara, Euskal Herria... hitz potoloegiak dira, garai haietarako.

## EGITARAUA

### Uztailak 19

Arratseko 9etan Solasaldiak: Patxi Larrion eta Pedro M<sup>a</sup> Esarte.

### Uztailak 20

10,30etan Herriko plazan elkartzera eta kalejira. Txalaparta oroitarriaren kaskoan.

11etan Gazteluan meza eta oroimenezko ekitaldia. Bertsolariak: Mikel Altzuart, Bittor Elizagoien, Laka Hitzaldia: Jimeno Jurio

12,30etan Dantzariak, mutildantzak...

2etan Bazkaria (300 lagun espero dira). Bazkaldoan, Laka eta Etxamendi abeslariak eta Joxe Angel eta Christian soinulariak arituko dira.



LEGE GORDAILUA: NA-1324/85  
FRANKEO ITUNDUA: 34/79  
TIRADA: 6.400 ALE

**Argitaratzailea:** ttipi-ttapa  
Herriko Etxeko Plaza, 1  
31780 BERA  
Tfnoa: 63 11 88  
Faxa: 63 12 91  
**Internet:**  
<http://www.encomix.es/ttipi-ttapa>  
**e-mail:**  
[ttipi@encomix.es](mailto:ttipi@encomix.es)  
**e-mail:**  
[ttipi@mail.sendanet.es](mailto:ttipi@mail.sendanet.es)

**uzendaria:** Joxemanuel Iri-  
goien. **Publizitatea:** Miren Kar-  
rele Tolosa. **Erredakzioa:** Aitor  
Arozena, Asier Gogorza, Joxe-  
manuel Irigoien. **Administrazioa:**  
Maia Goia. **Erredakzio taldea:**  
Pello Apezetxea, Juainas Paul,  
Kristina Boan, Bittori Telletxea.  
**erriemaileak:** Joseba Azpiroz,  
Esteban Arozena, Juana Mari  
Aizabarrena, Ainhoa Mutuberria, Iban  
Aizari, Txema Aldabe, Patxi Otxan-  
dorena, Ixabel Maia, Josune Etxe-  
berria, Pablo Mendiburu, Joseba  
Aizabarrena, Alizia Olaizola, Mar-  
tina Etxenike, Koro Irazoki, Mi-  
kel Gerendiain, Jacqueline, Eli-  
sabet Iturria, Garbiñe Maiz, Os-  
kar Txoperena, Pello Apezetxea,  
Aitor Arozena, Kristina Boan.  
**laboratzaileak:** EHNE Nafa-  
da, Mikel Bezunartea, Joxe Ja-  
ber Etxeberria...

**primategia:** Graficas Ona.  
**ttipi-ttapa** ez du bere gain har-  
rean derrigorrez, aldizkarian adie-  
zitako erranen eta eritzien eran-  
kizunik.

**akunde Laguntzaileak:** Be-  
nito Leiza, Goizueta, Areso, Baz-  
tan, Urdazubi, Zugarramurdi eta  
Garaio udalak, Bortzirietako Eus-  
kara Mankomunitatea, Malerre-  
ko Zerbitzu Mankomunitatea,  
Zugarramurdiko Akelarre Elkar-  
bana...



Aldizkari honek Nafarroako  
Gobernuaren laguntza jaso du

## GAURKOTASUNEN GAIA

### Atzerrirat bertze hizkuntza bat ikastera

**Esplotazio handia dago  
han, normalean jendea  
beti kexatzen da horretaz**



Arantxa ERASO  
Leizarrar

Aurtengo uztaile-  
an koadrilakoekin  
joatekoa naiz res-  
taurante batean

lan egitera. Orain arte bitan ego-  
na naiz Au-pair delakoetan, iaz-  
ko udan, eta duela 2 urte. Or-  
duan 14 hilabete pasatu nituen  
Manchester-etik 2 ordutara da-  
goen herri batean. Hasieran ume-  
ak kontzen egondu nintzen hi-  
ru hilabetez, baina oso gaizki tra-  
tatu ninduten; oso gutxi paga-  
tzen zuten, ezin zinen ia etxetik  
ateri eta berez haurrekin ez da  
inglesa ongi ikasten ahal. Or-  
duan aldatu eta amona bat zain-  
tzen jarri nintzen, eta harekin oso  
ongi, etxean bezala.

Han esplotazio handia dago,  
normalean jendea beti kexatzen  
da horretaz. Au-pair joaten den  
jendea hartzen dute merkeago  
ateratzen zaielako eta lan pilo  
bat egin behar izaten dute.

Hizkuntzari dagokionez, asko  
ikasi nuen amonarekin, egun  
osoa egoten bainintzen berekin  
eta ez zen ixiltzen. Hasieran ez  
nion deus ulertzen baino nola  
beti istorio berdinak kontatzen  
zieten...

Bertzetik, Manchesterren gose  
aunitz pasatu nuen. Eguerdian  
sandwich bat eta beraiek etorri  
arte ezin zenuen deus gehio jan.

**Gogoia dut berriz joateko,  
aukera baldin badut**



Xabi BERROUET  
Saratarrar

Orain dela urte  
bat hilabete osoa  
pasatzen izan  
nintzen beste la-

gun batekin Bartzelonan, espai-  
nola ikasteko asmoz. Bainan han  
katalana asko erabiltzen dute eta  
famiariakoekin solasten nuen espai-  
nolez, gehienbat. Katalanez  
ere hitz batzuk ikasi nituen.

Bidaia hori eskolaren bidez egin  
nuen; Parisen ikasi nuen bi ur-  
tez, eta beharrezkoa zen Fran-  
tziatik kanpo hilabete bidaia  
bat egitea, eta nik Kataluniara  
joateko gogoia nuen, erakasle-  
ari galdegin nion. Harek begi-  
ratu eta enpresa hau atxeman  
zuen.

Han enpresa batean egiten  
nuen lan, loreak produzitzen zi-  
tuen lantegi batean. Goizez ari-  
tzen nintzen eta arratsaldean ere  
lan pixkat egiten nuen. Gero ba-  
nuen denbora libre, halere.

Euskal Herriarekin konparatuz  
katalana gehiago erabiltzen du-  
te guk euskara baino, eta erda-  
ra oso gutxi aditzen da. Bainan  
ez nuen arazorik atxeman  
hizkuntza aldetik. Ni beti gazte-  
leraz aritzen nintzen eta nerekin  
bakarrik aritzen ziren erdaraz.  
Gogoia dut berriz joateko, auke-  
ra baldin badut, familia agur-  
tzeko.

**Ez nuen sobera ikasi, baina  
nekiena praktikatzeko,  
ordea, nahikoa.**



Itziar IGOA  
Beratarrar

Ni orain dela bi  
uda egondu nin-  
tzen Ingalaterran,  
Bathizeneko herri

haundi batean. Eskolako noten-  
gatik eman zidaten beka bateri  
esker joan nintzen, Nafarroako  
bertze 25 bat lagunekin batera.  
Hango familia desberdinen et-  
xean bizitu ginen, goizetan inge-  
leseko klaseak neuzkan, eta  
arratsalde, kirola, eskursio-  
ak... aukeran.

Familiarekin, egia erran, hagit-  
z gurti egondu nintzen ni, klase-  
tik etorri, bazkaldu, hor barna  
buelta bat eman eta gero oha-  
tzera zuzenean. Normalean Iru-  
ñeko jendearekin egoten nintzen.  
Klaseetat aparte, beraz, ez ge-  
nuen apenas ingelesez solasten.  
Horregatik, nik ez nuen sobera  
ikasi, nekiena praktikatzeko, or-  
dea, nahikoa. Oporrak eta inge-  
lesa ikastea, bien arteko na-  
hasketa bat izan zen.

Jateko hagit gauza arraroak  
ematen zizkiguten, sandwich bat,  
fruta pixkot eta bale. Afaltzeko  
berriz, arroza edo pizza, baina  
ogirik ez nuen ikusi hilabete oso-  
an, eta ezta serbilletarik ere. Gai-  
nera arraina eta haragirik ere ez  
dute jaten. Ah!, eta ez da egia  
(nere kasuan behinpin), ingele-  
sak ez direla dutzatzen.

## ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKO ETA LABORALA

### LESAKA:

- Egunero, arratsaldeko 4,30etatik 8etara.
- Asteazkenetan, goizeko 10etatik aitzinera ere bai.

Non: MALDAERREKA S.L., Bittiria 6, Tfnoa: 63 74 04

### IRUÑEA:

- Bulego Zentralean: ARTEKARI, S.L., Tfnoa: 17 55 40

Non: Rioja Etorbidea 6, Atzekaldea Behean.

- Langile Autonomoak
- Nekazariak eta mendi langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-kontratutarako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta aitortpenak
- Elbarritasun eta jubilazio espedienteak
- Bideragarritasun planak eta aurrekontuak

## BOTA BERTSOA



## Amaiurko gazteluko borroka

Bittor ELIZAGOIEN (Arraioen)

Neurria: Hamarreko Itikio

S...  
utzi odo,  
nahiz Amairu...  
ez zen hil kontzientz...  
maite duenak gure Herr...  
eta independentzia  
gaztelutikan bota dezake  
askatasun irrintzia.

## IRAKURLEAK MINTZO

## Baztanen eskuaraz

Uda iritsi da. Udarekin batera, urte osoan esperatu-tako bestak: Irurita, Arizkun, Amaiur, Elizondo, Elbete, Ziga... Baztango herri guztiak kolorez jantziko dira, musikaz beteko, edari ugari egonen da ostatueta... aukera ederra izaten dugu bestetan aspaldiko jendea ikusteko eta gorabehera berrietaz hitzegtiko. Halere ez dezagun ahantz gure hizkuntza maitea. Maiz aditzen ahal da koadrila ezberdinen ahoetan erdara. Hainbat alditan jatorrak iduri nahi dugu erdaraz hitzegtien ostatueta. Hertzainak taldearen musikarekin, jantzi jator batzuk soinean daramagula, baina mingaina erdalduna. Kontuz ibili! Kanpotarren, menperatzaileen hizkuntza erabiltzen dugu, konturatu gabe Euskal Herriaren sustraia euskara dela. Euskara da gure hizkuntza. Bai, hortan denok ados gaude. Orduan, zergatik beti erdaraz? Dantzak, mutil dantzak, txistua, txalaparta, ikus dezakegu herrietako plazetan, orduan, zergatik ez euskara? Aukera ederra dugu ohitura txarrak aldatzeko. Buelta maitezen sustraietara, egin dezagun gure aitexi-amatei zaharrak bezala, hitz egin dezagun eskuaraz. Bizi gaitetzen eskuaraz, ez gait-

zen hipokresian eror. Eskualdunak garelako eskuaraz hitz egin behar dugu. Azalezko euskaltzale aunitz dago Baztanen. Hau da, euskara aunitz maite dutenak bainan erdaraz aritzen direnak. Behin ere ez dugu lortuko Euskal Herri euskaldun bat, ezta Baztan euskaldun bat ere, euskara baztertzen badugu eta erdaraz hitzegtien badugu. Beraz denon eskuetan dago, bestetan eskuaraz!

BAZTANGO E.H.E.



## Greba «ARGIA»n

“Argia” aldizkaria eta proiektua zulo beltz batera darma egungo zuzendaritzak. Azken erabakiak ezin mingarriagoak gertatu dira hainbat langilerentzat: Arantxa Erasun, Arritxu Zelaia eta Juan Joxe Petrikorena kaleratuak izateko bidean dira. Mikel Jauregiri, berriz, bi urte eta bederatzita hilabete lanean aritu ostean, ez diote kontratua berri. Erabaki hauek Pello Zubiria zuzendariak bultzatu eta Administrazio Kontseiluak bere egin ditu. Oinarrian arrazoi berari helduz: “Gu ez gara Argiarentzat baliagarriak”. Kronologikoki, Mikel Jau-

regiren inguruan Administrazio Kontseiluak hartutako erabakiak ekarri ditukatean besteak ere. Azpian sinatzen dugunok ez genuen onartu kontratua ez berritzeko Pello Zubiriak baliatu zituen argudioak, oinarri gabekoak zirelakoan. Honela jakinarazi genion Administrazio Kontseiluari eta berraztertezan eskatu. Gure eskaerari eta guri-jaramonik egin gabe baina, erabakiarekin aurrera egitea deliberatu zuen.

Gauzak honela, plante bati ekin genion pasa den ostean, eta erantzun gisa ordenadoreetarako sarrerak galeratzea, telefonoa kentzea, kaxoiak hustutzea, ateko zerraila aldatzea eta lau eguneko soldata eta lan suspentsioa jaso dugu. Egoerak okerrera egin duela ikusirik, eta gure eskaerak defenditzeko beste biderik geratzen ez zaigunez, grebarako deialdia egin dugu uztaillaren 8tik abiatuta. -Zeruko Argia SALaren egoera irregularra salatuz. -Lanpostu finkoak aldarrikatuz. -Ezari zaizkigun zigorrak kentzaten eskatuz.

ARANTXA ERASUN  
ARRITXU ZELAIA  
JUAN JOXE PETRIKORENA



## Errekalde ostaturia

Ortziraletan, 10etan Mus Txapelketak

Tfnoa: 630259 - BERA



ELIKAGAIK  
Gazta, Txistorra, abatekiak, goxak,  
barazkiak, ardoa, patxarana eta likorrak  
ESKULANAK  
Egurra, buztina, burdina, zumitza  
Astelehenetik igandera irekia

Altzate 14 • Tfnoa: 631151 • BERA

## internet

Hamabostero paperean  
eta mundu zabaleko ordenagailuetan

<http://www.encomix.es/ttppi-ttapa>  
Postontzi Elektronikoa: [ttipi@encomix.es](mailto:ttipi@encomix.es)

**Patxi URRUTIA** Amaiurtik

## Amaiur 1522-1997



**O**rain dela 475 urte gertatu zen. Kastillako erregearen soldaduek Amaiurko gaztelua

menperatu eta desegin zuten. Nafarrek beren askatasuna defendatzeko gogor borrokatu zuten, baina kanpotik heldu zirenak aunitz eta aunitz gehiago ziren eta harresia urra-

Etxalarko Agirre, Jaime Velaz, Gazteluko nagusia...

Honek erakusten digu nafararren ekintza bat izan zela Amaiurkoa.

Orduko egoera eta gaurkoa ezin dira konparatu. Bizimoduak aldatu dira, menpekotasunak ere, jauntxoek ez diraute orduko erara, eta erregetzak ere gaurkotasunik ez du.

Dena den, orduan armen bidez nafarroi askatasuna ebatsi zigun kanpoko errege batek, eta bere ejertzitoak. Geroztik, pixkanaka-pixkanaka, gure burua gobernatzeko genituen eskubideak desagertuz joan dira Kastillako erregearen ondorengoen eskutik.

Ez ote litzateke interesgarria orduan ebatsitakoak gaur eskuratzea?

Behar bada ez ditugu orduko ohitura guziak mantenduko, erregeak, bizi-

moduak... baina zertaz ez ditugu orduko eskubideak gure esku izan behar gaur ere, gure gauzetaz arduratzeko, eta hauei buruz erabakiak hartzeko.

Egun hortan gogo oneko nafar eta euskaldun guziak ongi etorriak izanen zarete Amaiurren, eta bere hortan gure historiaz, gure gaurkoaz eta gure etorkizunaz hitz egiteko aukera zabala denentzat izanen da, lehenik goizaldean monumentuan bertan, eta baita ere elkartuko gaituen bazkariko mahaiaren inguruan.

**Behar bada ez ditugu orduko ohitura guziak mantenduko, erregeak, bizimoduak... baina zertaz ez ditugu orduko eskubideak gure esku izan behar gaur ere, gure gauzetaz arduratzeko eta hauei buruz erabakiak hartzeko.**

tuz, irekitako ziloetatik sartu ziren.

Aurten urteurren borobildenez Amaiurko Gaztelu elkarteak gertakizun historiko hori uztailaren 20an ospatzea erabaki du, eta antolakuntza lanetan ari da. Ez da, ez, Amaiurtarren besta bakarrik, bertze herriarren besta ere bada. Nafar guziena, euskaldunena, behenafarroak ahantzi gabe.

Amaiurko defendatzaile zenbaitzuen izenak dakizkigu; hor zeuden Xat-su anaiak, Xabierreko semeak, Urdazubiko abadea,

**Joxean AZPIROTZ** Etxarri-Lekunberriko 10 gose grebalarien izenean.

## Txapelokerren puzkerrak

**Z**uri, Galindo-kume berdeko horri, zuzendua da gutun hau, Lekunberri gose greban gaudenok antolatutako giza-katea pasatzerakoan, lehiotik ipurmasailak erakutsiz agurtu gintuzun "Espainia handiaren" demokraziaren zaintzaile fin horri.

Zenbait gauza azaldu nahi genizkizuke, seguruenik ez dizkizue esplikatu izango zuen giza?-formazio kuarteleroan eta. Lehendabizi argituko dizut zein garen eta zergaitik gauden hemen 8 egun gose greban. Gu hemengo pertsona arrunta batzuk gara, araitzarak, basaburutarrak, leitzarrek eta larraundarrak, eta hemen gaude gure presoak beren herrira, hau da, Euskal Herriera ekar ditzaten eskatzeko, hemengoak direlako. Gureak dira bai, Juanjo Zubietak, Xabier Golderaz, Xabier Nieto eta Juan Miguel Apezetxea, herri honen askatasunaren alde pertsonak eman dezaketen guztia emateko gai izan direlako. Horregatik baraualdi xume honen gure elkartasuna eta mirespena azaldu nahi diegu beraie eta beraiek bezalako borrokalari guztiei.

Baina zu? ipurdi anonimo hori, nor zaitugu? Numero bat. Espainiako milaka beneméritoen artean, soldada on baten truke eta armez baliatuz herri honi irain egin diezaiokela us-

te duen arrotza. "Ez izan eta bai izan sasipeko masure". Jakin ezazu zure harropuzkeri-puzkarti horrekin bagenekien zerbait konfirmatu diguzula, hots, Espainiako aginteak Euskal Herriari dion errespetu eza. Baina oker zaudete, bide honetatik Euskal Herria menperatuko duzuela uste baduzue; beren argudio guztiak ipurdian eta ipurtondoko zintzilikarioetan dauzkatena, galduak daude luzarora eta zuek egun batean (ahal den laisterren hobe) gure herrietatik alde egiten ikusiko zaituztegu. Orduan kristoren ospakizunak egingo ditugu, "berde"rik gabe geure paisaia berdez gozatzeko.

**Baina oker zaudete, bide honetatik Euskal Herria menperatuko duzuela uste baduzue; beren argudio guztiak ipurdian eta ipurtondoko zintzilikarioetan dauzkatena, galduak daude luzarora eta zuek egun batean (ahal den laisterren hobe) gure herrietatik alde egiten ikusiko zaituztegu. Orduan kristoren ospakizunak egingo ditugu, "berde"rik gabe geure paisaia berdez gozatzeko.**

karioetan dauzkatena, galduak daude luzarora eta zuek egun batean (ahal den laisterren hobe) gure herrietatik alde egiten ikusiko zaituztegu. Orduan kristoren ospakizunak egingo ditugu, "berde"rik gabe geure paisaia berdez gozatzeko.



## PRENTSATIK BILDUTAKOAK

## 11 GALDERA LABUR



Egin 97-VII-10

«Komikia lantzen nuen garai hartan eta han-hemenka lan eginez bizi nintzen. Bizimodu horrek ere nekatu egiten du eta Etxalarren geratzea suertatu zitzaidan. Dena den, lekuari baino gehiago erreparatzen diot jendeari bizilekua erabakitzeke orduan».

**Adrian LABBADIE**  
Etxalarko artista  
Egin 97-VII-10

«Zenbat Ortega Lara, euskal preso politiko eta odol isuri beharko den behingoz horretan ardura politikoa dutenek egoera honi irtenbidea bilatzeko».

**Joseba IGARABIDE**  
Erratzukoa  
Egunkaria 97-VII-9

◆ **Oroitzen al zara noiz erosi zenuen zozketaren txartela?**

❖ Korrikaren saria da, atera gabeko zenbakietan zozketa egin zuten saltzaileen artean.

◆ **Beldurrik ba al diozu hegazkinez bidaiatzeari?**

❖ Batera.

◆ **Kubaz aparte, munduko zein lekutara joanen zinateke?**

❖ Australiara.

◆ **Saltsa dantzatzeko, Herriko Ostatuan edo Kuban?**

❖ Probatu gabe daukat Kubakoa, momentuz ostaturakoa.

◆ **Zein da zenbaki saritua?**

❖ 1.451.

◆ **Nola enteratu zinen suertatua zitzazula?**

❖ Telefono dei baten bidez.

◆ **Zaletasun berexiren bat?**

❖ Bitxikeriak.

◆ **Ze kontzertutara joanen zinateke gustora?**

❖ Hertzainak ikusiko nituzke gustura, utzi zutenean ezin izan nituelako ikusi.

◆ **Pertsona batengandik gehien eta guttien gustatzen zaizuna?**

❖ Humiltasuna eta harrokeria, dudik gabe.

◆ **Herriko Ostatuko sukaldari edo etxeko sukaldari?**

❖ Bietan gustora.

◆ **Otordu bat, edari eta janaria?**

❖ Jateko txangurroa eta angulak eta edateko ardo beltz on bat. Postrea berriz, txanpai sorbetea.



**Mari Jose BERAU**  
Iturendarra, Kubara bidai baten irabazle

**Ostargi Optika**  
Bidasoa karrika, 8 • BERA • ☎ 948 - 63 07 53

**ttipi-ttapa**



Zure  
publizitaterik  
onena

631188

**ttipi-ttapa**  
Inprenta lanak  
egiten ditugu

- Kartelak
- Boletoak
- Faktura taloiak
- Bisita txartelak
- Aldizkariak
- ...

Behar duzuna momentu batean eginen dizugu; zure gustora diseinatu, inprenta desberdinekin preziorik hoberena negoziatu eta listo! Deitu lasai, eskatu aurrekontua eta ikusiko duzula!

☎ 631188

E D A R I A K



MANUEL TABERNA S.L.

Bidasoa K / 82 - 31780 BERA (Nafarroa)  
Tel. - Fax: 948. 63 10 27

**PIKABEA**

Molinero drogerian  
galdetu

*pinturak*

**Etxe barneko hezetasun eta kondentsazio arazoak moldatuko dizkizugu**

- Fatxadak
- Barne dekorazioa
- Pintura orokorrean

Izpoz 8 • ☎ 630240 - 631495 • BERA

## Komunikabideen berrikuntzari emandako saria eskuratu du TTIPI-TTAPAK

Rikardo Arregi Kazetaritza Sariaren IX. edizioan

Andoaingo Udalak bederatzigarren urtez antolatutako Rikardo Arregi Kazetaritza Sariara aurkeztutako 208 lanen artean, «Komunikabideen berrikuntza» ataleko saria eskuratu du TTIPI-TTAPAK, euskal prentsan Interneteko edizio elektronikoa osatu duen lehena izateagatik. *Entzun!* musika aldizkariari ere sari bera eman diote, euskararentzat esparru hori irabazteagatik.

Sari banaketan aipatutakoaren arabera, «*hedabideetako lana euskaraz burutzeko berrikuntzarik handiena eta eraginkorrena egin duenari eman diote*». Aurtengo saria ex aequo ematea erabaki du epaimahaiak aho batez, bi enpresa desberdinek bi alor desberdinetan «*euskarari eman diotelako behar zuen tor-nua*».

TTIPI-TTAPA izan da euskarazko prentsaren munduan, ez argitalpenaren zati batekin baizik eta aldizkari osoarekin, aldizkari-ko informazio guztiarekin



Euskarazko prentsaren munduan, aldizkari-ko informazio guztiarekin Internet sarean edizio elektronikoa eskaini duen lehena izan da TTIPI-TTAPA.

alegia, edizio elektronikoa Internet sarean eskaini duen lehena. 1996ko uztailearen 5ean hasi zen aldizkari hori Interneteko edizioa argitaratzen. Modu horretara, epaimahaiaren ustez, «*euskal prentsa amaraun-mundu be-*


*rrian sartzeko bidea ireki du TTIPI-TTAPAK: nolabait esateko, aldizkari nafarrari zor diogu euskal kazetaritza amaraunean, Interneten, sartu izana. Eta ahaleginak neurtzea egoki ez ezik bidezkoa ere badeenez, azpimarratzekoa*

*da toki aldizkari bat izatea urrats hau ematen lehena gure artean.*


*Entzun!* eta TTIPI-TTAPAREN lanari esker, euskararen erabilerrako mundu berriak eskuratu ditugula uste du Rikardo Arregi Sari-ko epaimahaiak.



Rikardo Arregi Sarria



Lamien Urrezko orrazia



Argia Sarria

### Laugarren saria aldizkariarentzat

TTIPI-TTAPA lehen aldiz karrikaratu zenetik 1981ean, oraingo hau da jaso duen laugarren saria. 1990-ean Iruñeko *Zaldiko Maldiko* elkartek emanik, *Lamien Urrezko Orazia* izeneko saria eskuratu zuen, «*Nafarroako eskualde euskaldunean eginiko lana, aldizkari herri eta txoko guzietara ailegatzaren baita*» eta «*hiruhilabetekaria*

*hamabostekaria bihurtuz eginiko hobekuntza*» saritu zen.

1991ko abenduan, *Arkupeak* Erretiratu eta Adintuen elkarteak ere saritu egin zuen aldizkaria, «*euskararen alde egindako lana*» eskertuz.

Berrikiago, 1995eko abenduan, «*herri prentsako erreferentzia nagusietako bat den eta Nafarroako eskualde oso bati bizi berri bat eman diolako*» prentsa idatziko Argia saria eskuratu zuen TTIPI-TTAPAK. Eraberean, hamabostekariak «*euskarazko irakurleak ia deusetik sortzeko apostua egin duela*» zioen Argiak.

**Dia** % **Autozerbitzua deskontua**

## Hamabostero ofertak

Zatoz eta ikusi

Eztegara, 6 • ☎ 63 14 03 • BERA

## ALBAITERITZA KLINIKA BERRIA ZABALIK

☎ 63 1362 • Legia 13 BERA

Txertoak, analisiak, kirurgia, pentsuak eta osagarriak

# Uztailaren 25 eta 26an ospatuko dira Santiago bestak Alkaiagan

Ortziral eta larunbatean hainbat ospakizun izanen dira

ASIER GOGORZA

Astehondar honetan ez, hurrengoan ospatuko dira Alkaiagako bestak, Santiago egunean hasita. Ortziral goizeko mezarekin abiatuko dira ospakizunak; ilunabarrean Gure Txokoako dantzariak urteroko erakustaldia burutuko dute, eta gero "Bera" trikitixa taldeak alaituko ditu bazterrak. Arratseko 12tan, berriz, Kristina eta Amaia txanda etorriko da. Biharamonean, haurrentzako kalejira eta haur jokak egingen dira arratsaldeko 6etan, eta auzokoek afari kokkor bat egingen dute ondoren. 11tan hasiko den dantzaldia eta geroko rock jaialdiarekin emanen zaie akabera bestei.



## 500 bat lagun elkartu ziren uztailaren 5eko manifestaldian

Bortzirietako 42 elkartek egindako deialdiari erantzunez, ehundaka lagun hurbildu zen Berarat manifestaldi isilean parte hartzeko asmoz. Agerratik Altxateko plazara eginiko ibilaldian zehar, Herri Ekimena osatzen duten taldeetako ordezkariak txandaka eraman zuten pankarta, argazkian ikusten ahal denez. Protestaldia akitu baino lehen komunikatu baten irakurketa egin zen, presoen egoera salatu eta lehenbailehen Euskal Herrira ekar ditzaten eskatuz.

## Peñen arteko futbito txapelketa aste honetan abiatu da

Pasa den astelehen honetan (uztailak 14) hasi da Berako peñen arteko futbito txapelketaren 3. edizioa. Aurtengoan 14 taldek eman dute izena (azkeneko momentuan bat edo bertze gehiago apuntatu ez bada bederen) eta kanporaketa sistema iazkoaren gisakoa izanen da. Finala abuztuaren 1ean jokatu da, Baietz peñakok adierazi digutenez. Erran behar dugu aurtenera ere koadrila horretako lagunaren artean antolatuta dutela txapelketa hau, eta Berako Udalak diruz lagundu duela.

Partiduak arratseko 8etan izanen dira, herriko polikiroldegian.

Partiduak arratseko 8etan izanen dira, herriko polikiroldegian.

## Gure Txokoak kultur hilabetea antolatzeko dirulaguntza jaso du

Mugaz bi aldetako herriek antolatu ohi duten kultur hilabeteak "Herriak eta Hiriak" izena hartuko du aurtengoan. Abenduan ospatzekoa da eta hainbat ekitaldi egiteko asmoa dute, hitzaldiak, literatur lehiaketa, kontzertuak... Aurtenera Zugarramurdiko Akelarre Elkartek

parte hartuko ez badu ere, Sarako Etxola, Azkaingo Altxa Lili, Berako Gure Txokoa eta Etxalarko Altxata elkarrekin ariko dira antolaketan. Horretarako, Akitania-Euskadi-Nafarroa laguntza fondoak Gure Txokoari 455.000 pezetako dirulaguntza eman diola aipagarri da.

## flash

❖ **Musika eskolan** klaseak ematen zizuten 5 irakasleri kontratua akitzen zaiela eta, deialdi publikoan argitara ateratu dute. Tronpeta, txistu, kitarra, perkusioa eta klarinete-saxoko klaseak emateko hautagai gisa aurkezten direnek uztailaren 27a baino lehen egin beharko dute eskaria, eta oposaketak irailaren izanen dira. Bertzetik, erran aurtengo ikasturtean 170 ikasle aritu direla Musika Eskolan, 8 irakasleren aginduetara.

❖ **Basket 3x3** txapelketa antolatu dute polikiroldegiko arduradunek. Partidu guztiak abuztuaren 1eko arratsaldean jokatuko dira, polikiroldegian barreraren hiruzpalau partiduen bora berean jokatzeko aukera baitago. Izena eman nahi dutenek bertara agertu edo telefono honetara deitu beharko dute: 630215

❖ **Mendi garbitze** lanak egingen dituzte aurtengo udan Arregi izeneko parajeetan. Horretarako, Nafarroako Gobernuak eta INEMek akordio bat sinatu dute langileak kontratatzeko. Berriki oihanberritu diren zatietan sasiak kentzea izanen dute helburu nagusia.

### FOTO GOIKO

Altxate 26  
Tel.-Fax: 630515  
BERA

### SAROB

okindegia



SANDERS Pentsuak  
Eztegara 41, Tfnoa: 63 08 99 - BERA

### BOTXO ostatua

Tfnoa: 63 00 52  
Zalain Auzoa, BERA

GOZOTEGI - JASONE

Altxate, 19 • 630786 • BERA

# Urbasako Natura Eskolan kanpaldia egin dute Tantirumairu ikastolakoek

'Gure Bazterretako bizia' proiektuaren barnean

AITOR AROZENA

Tantirumairu ikastolako neska-mutikoez aurtengo kanpaldia «Gure bazterretako bizia» berrikuntza proiektuaren iharduera izan denez, Urbasako Artelaz Natura Eskolan gauzatu dute, bartz egunez. Proiektu honek Akintania-Euskadi-Nafarroako fondoan dirulaguntza jaso duenez, egonaldiaren prezioa 19.817 pezetatik 10.000 pezetara jeitsi da. Hortaz gain, Nafarroako Inguirugiro sailetik ikastetxeak proiektu horren gain jaso duen dirulaguntzari esker, ikasleek ordaintzeke dutenari 1.500 pezeta kenduko zaizkie.

Bertan garatu dituzten unitate didaktikoak paisaiaren irakurketa (gailur batera igoz bertatik ikusten den paisaia



**Haurrek esperientzia aberasgarria bizitu dute Urbasa aldean. Bartz eguneko kanpaldian, naturaz gozatzeko eta beretz ikasteko probextu dute.**

aztertu), paisaia karstikoa (ibilaldietan dolinak, lapitzak, leizeak, kobazuloak bilatu), gizakiaren presentzia Urbasan historian zehar (historiaurreko monumentoak, karobiak, galzadak, artzain-txabolak, kanpina... guziak identifikatu eta garai historiko batekin erlazionatu), uraren zikloa naturan (urak eragindako erliebearen elementuak ikertu dute, kobazuloa) eta landaretza (Urbasako mendizerraren zuhaitzia 22 espezie desberdinetaz osaturik dago, guziak desberdinu eta basoaren ekosistema ulertu dugu iharduera honen bidez) izan dira.

Beraz, kanpaldian ongi pasatzeko aukera izateaz gain, ikasteko baliagarria ere izan zaie eskurtsio hau Tantirumairukoei.

## flash

❖ **Dimisio eskaera**  
HBko udal taldeak alkatearen eta Etxebeste zinegotziaren dimisioa eskatu du idatzi baten bitartez. Beraien ustez, Dendarinea inguruan (garai bateko zaborte-gia) egindako bi espedientetan ez dute ongi jokatu eta beraien karguaz baliatu omen dira.

❖ **Bittiriako pilota txapelketa**  
Juanjoxe Irazoki eta Aitor Mitxelena dira lehen aldiz jokatu den txapelketa honetako txapeldunak, finalean 22-18 irabazi baitzieten Jorge Etxepeteleku eta Pitxurriri. Hemezortzi bikote aritu dira jokoan.

❖ **Zinegotziaren kargu uztea**  
Justo Agirretxe, PNVko zinegotziak, bere kargua utzi du. Bere azken ekitaldi publikoa, Sanfermin egunean bandera dantzatzea izan zen.



## Guttiago gelditzen da 1998ko Sanferminetarako

Aurtengoz joan zaizkigu Sanfermin bestak. Egun nagusian eta peñen egunean eguraldi bikaina izan genuen eta beti bezala, Onin erreka ingurua izan genuen bestaren ardatza. Bestak ofizialki hasi baino lehen eta akautu ondoren ere, hainbat bisitari izan dira herrian, asteburua probextuz. Besta egiteaz gain, hainbat ikuskizunetan parte hartzeko aukera izan da.

Legarra

**Deñe**  
LENTZERIA  
MERTZERIA  
Tfnoa.: 62 75 14  
Beheko Plaza 8, LESAKA

**IRU BIDE**  
ERRETEGIA  
Tfnoa: 637127  
LESAKA

**INAXIO JANARIBENDA**  
Igandetan 9etatik 13etara irekia  
ASTERO eskeintza bereziak  
Plaza Zaharra, Tfnoa: 637059 - LESAKA

**KATTU**  
ostatu - jatetxea  
Plater konbinatuak eta menuak  
627573 • LESAKA

**ETXALAR**

# Zugarramurdi eta Baztanerako bidea konpondu nahi du Udalak

Bi herri horietako udalekin batera egin du eskaera

PELLO APEZETXEA

Bidea moldatzeko dirulaguntza eskatu du Etxalarko Udalak, Baztan eta Zugarramurdikoarekin batera. Denbora berean, honako hau adierazi ere egin du, bide horren zainketa bere gain hartzen duela Udalak, eta ez duela Gobernuaren eskuetan utzi nahi. Hori bai, baldin eta Gobernuak dirulaguntzak oraingo gisara banatzen baditu.

## 35 arjentinar izan ditugu bisitari

La Platako Eusko Etxean biltzen diren euskaltzaleek antolatu zuten bidaia. Helburua, Euskal Herria ezagutzeta. Ekainaren bigarren erdialdiko egunak hortan aritu dira. San Pedro egunean Etxalarren egon ziren, Stella Iturbideren eskutik.



**Jauregieta auzoko bazkaria** Uztailaren lehen igandean, 30-35 lagun bildu ziren Mendialdea etxeko zelaian jarritako mahaien inguruan urtero egiten den auzoko bazkarian. Argiñeneko Jose Mari zuten bildotserretzaile, eta Elizelaiko Jabier kordeona jotzen. Gero berendu-afaria.

## Herriko Etxe zaharreko konpontze lanak hasiak dira

Barren hustutzea burutua dute dagoeneko. Orain proiektua dute egin beharra, eta lehiaketa publikora dei egin, teilatua berritzea, parretak berritzatzea eta barrengo par-

tizioa aitzinera eramateko, sosaren arabera. Udalak onetsitakoa eta Gobernuak emandakoarekin, hamasei bat milioi denetara, ez baita gastu osoa estaliko.

**flash**

**Dirulaguntza**

Altxata Kultur Elkar-teari 250.000 pezeta eman ditio Udalak, 1996ko defizita estali eta 1997ko ekitaldietarako.

**Bideak hobetzeko**

Bideak hobetzeko 19 milioi eta erdiko lanak, Arkaitza enpresari eman dizkiote. Injenieri bat hartu du Udalak obrak ikusi eta kontrolatzeko.

**Pilota txapelketa**

24 hurrek hartzen dute parte, palaz eta eskuz. AndreMarietan akautuko den txapelketa. Sei urtetik hamabi artekoak, neska eta mutiko, Joxe Mari Arburuaren gidaritzapean.

**Ttorttoila ehizia**

Abuztuan hasiko den ttorttoila ehizirako baldintzak hauek izanen dira: zozketan parte hartzeko 200 pezeta ordainduko da, postua, berriz, 350 pezeta eguneko.

**BEKO ERROIA**  
Lore eta landareak  
Frain auzoa • ☎ 63 78 26  
LESAKA

**BEREAU**  
jatetxea • Hotela  
Lesakako Bidegurutzean  
Tfnoa: 62 75 09 • LESAKA

**Javier Manterola**  
TEKNIKO  
INSTALATZAILEA  
iturgintza • gasa • kalefakzioa  
Tfnoa: 630 031 • BERA

**XATURETXEA**  
JATETXEA  
Tfnoa: 63 70 27 LESAKA

**TXURULA**  
Albistur, 39-K  
☎ 627542  
LESAKA

- bitxikeriak •
- opariak •
- enmarkazioak •

**HERRIKO OSTATUA**  
Jatetxea  
Ikasturtea otordu eder batekin bukatu nahi duzula?  
Menu eta prezio bereziak irakaste, ikaste eta gurasoentzat Deitu lasai ederrean!  
ASTEARTETAN ITXITA  
Astegunetan afariak aurrez eskatuta bakarrik

**koxkonta**  
Ezkontza, bataio eta bileretarako leku egokia  
Deitu erreserbak egiteko  
Otsango auzoa, Tfnoak: 627503 / 627519 • LESAKA

**IGANTZI**

# Lasto altxatzen Eduardo Eugi berriz ere Nafarroako txapelkun atera da

Franzisko Mitxelena eta Eugenia Lasaga omendu ditu Arkupeak elkarteak

**PATRI ARBURUA**

Franzisko Mitxelena eta Eugenia Lasaga izan dira Arkupeak Elkarteak joan den hilabetean Donezteben ospatutako jaialdian omendu dituen igantziar bakarrak. Zerunetako bikoteak urrezko ezteiak betetzen ditu aurren. Zorionak eta aunitz urtez.

**Mountain bike**

Uztailaren 19 eta 20an Gironan jokatu diren estatuko txapelketetara joateko aukeratu ditu Nafarroako Federazioak Warsteiner-Biltoki bizikleta taldeko Asier Apezetxea, Xabi Telletxea eta Santi Iturbide. Lan zaila izanen dute bertan, baina esperientzia polit hori ez die inork kenduko. Animo!

Eta bizikletaz ari garenenez, bertze igantziar



**Igantziarrak nagusi Nafarroako lasto altxatze txapelketan**

Eduardo Eugi dugu aurren ere Nafarroako txapelkun lasto altxatzen, uztailearen 5ean jokatu ziren txapelketetan 15 altxaldi bi minutuz egin eta gero. Iaz baino bi altxaldi gutiago egin zituen, baina, dena erran behar da, arau berriekin goitiago altxatu behar zuten fardoa. Bere ondotik gelditutakoak ere igantziarrak ditugu; Iñaki Bereau, Xabier Sein eta Luis M<sup>a</sup> Zelaieta. Ez da nolana hikoia Elustako harrobia.

Oskar Txoperena

bidaia eta gurasoak eurenkin izan zituzten laguntzeko, hauek furgonetaz, noski.

**Gazteentzako lokala**

Igantziako Biltoki Elkarteak eskaera egin dio Udalarari gazteentzako lokala berri bat bilatzen laguntzeko. Azkeneko plenoan solastu ziren gai honi buruz eta elkarlanean eramateko baiezkoa eman zieten Udalekoek Biltokikoiei.

**Antonio Lizardi**

Epearen barrenean inork izenik eman ez zuenez, Udalbatzak aho batez izendatu zuen bakoitza Antonio Lizardi. Jose Luis Zelaieta, berriz, ordezkoa izanen da. 38 laguneko behin-behineko zerrenda onartu du bertaldeko administrari lanposturako lehiaketan parte hartzeko.

batzuk eginikoa ezin aipatu gabe utzi. Aste bat behar izan dute Txope-

neko Felipe, Salba eta Joxean Lizardik Nafarroatik Santiago arteko

bidea bizikletaz betetzeko. Uztailaren hasierako egunetan egin zuten

**J. RAMOS**  
Zolak akutzilatatu eta barnizatzen dittut  
© 631342 BERA • © 637172 LESAKA

**OKANE**  
HARATEGIA • URDAITEGIA  
Kanttonberri 4, Tfnoa: 63 00 18 • BERA

**barnek s.l.**  
Sukalde mobileen fabrika  
**Zuzeneko salmenta**  
Lesakako sarreran, Beko-Errota ondoan  
Otsango auzoa • LESAKA • Tel.: 637850, Fax: 637928

**Aranguren**  
Aroztegi mekanikoa  
Tel.-Fax: (948) 63 72 58  
Tel.mug.: 908 -77 51 85  
Otsango industrialdea  
31770 LESAKA

- Leihoak
- Aurre-markoak
- Eskailerak
- Fabrikanteak gara

**ARANTZA**

# Ekaitza elkarteak antolatzen duen pilota txapelketa larunbatero jokatzeko ari da

Herriko pilotariek osatutako 20 bikotek hartzen dute parte

ELIXABET ETA GARBIÑE

Egun hauetan jokatzen ari da Ekaitza Elkarteak urtero antolatzen duten pilota txapelketa. Adin guzietako 20 bikote daude, benjaminetatik hasi eta afizionatuetara, eta parte-hartzaile guztiak aranzarrak dira. Izan ere, pilotarako zaletasun edo afizioak ez baitu beheiti egin gure herrian.

Larunbatero larunbatero egiten dituzten partiduetatik aterako dira finalistak, eta hauek herriko bestatan jokatu beharko dituzte norgehiagoka erabakiorrak.

Goitian erran dugun bezala Ekaitza elkarteak ari da txapelketa hau antolatzen, baina horretaz berexiki arduratzen den kirol komisio bat bada; Juanjo Madariaga eta Imanol Iturriak osatzen dute komisio hori.



lazko txapelketan sarituak ateri ziren gazteak

hartuko du heldu diren lau urteetan. Bere lana herri mailako epaiketak egitea edo jaiotza eta heriotza zertifikatuak egitea izanen da bertzeak bertze, Jose Ramón Amoros alkateak adierazi digunez.

**Ana Larretxea**

Arantzako gazte hau Peru aldera joana zaigu Peru 97 mendi-espedizioan parte hartzera, bertze 4 beratarrakin batera. Beraien intentzioa Huascaran (6.769 m.) eta Alpamayo (5.947 m.) mendiak goitzea litzateke, Andean duden mendirik haundienetakoa. Erran behar da Arantzako udalak 50.000 ptako laguntza eman diola espedizioari, gastuetarako.

**San Juan eta Unanue...**

mendien antolamendurako proiektua eskatua zaio enpresa bati.

**Aterpen euskara ikasten**

Azkeneko urteotan gertatu den bezala, aurren ere Aterpeko barne-tegira jende multzo handi xamar bat etorri da euskara ikasteko asmotan. Pasa den astean

Euskal Herriko hainbat lekutako 46 lagun ailetu ziren, eta uztaila akabera arte gelditzeko intentzioa omen dute. Hala ere, hauek joaterakoan bertze talde bat etorriko da, abuztu osoa pasatzera.

**Bake epaile berria**

Orain arte bake epaile zen Lorenzo Telletxea Sansiñenari bere denboraldia akautu zaiola eta, Herriko Etxean betetzen zuen postua Isabel Tarazona Larretxea aranzarrak

**ANTZUZELA S.L.**

Irungo errep. - BERA - Tel. 948-631317

**HARRI NATURALA**

ATERATZEA eta LANTZEA

Antzinaldeak	Tximiniak
Angelak	Erlaizak
Orma antzinak	Moldurak
Leihoak	Zokaloak
Ateak	Hilariak
Arkuak	Marrazkiak
Pilareak	

"Abuztuko" Muzioa  
Zehar antzoko Txapetina

ZINTARRIAK  
ADOKINAK  
ZOLAK

**ALBERGEA JATETXEA**

**ATERPE**  
ALBERGEA

© 634179  
ARANTZA

**GRUPO ZURICH**

**ASEGURO OROKORRAK**

Itzea, 4 - BERA - © 63 07 63

**KOXKILA OSTATUA**

Zarandia, 4 - **LESAKA**

**OBRA PROIEKTUAK**

- ✓ Etxe berriak eraikitzeko
- ✓ Zaharbarritzeko kanpotik eta barnetik
- ✓ Urbanizazio proiektuak
- ✓ Obra-zuzendaritza

Udalendako aholkularitza-zerbitzua hirigintza lanetan

**BIDASOA**  
arkitektura bulegoa

Bittiria, 45 • © 637503 • **LESAKA**

**EROSLE**  
LESAKA

Kalitate-prezio arteko orekarik hoberena

**Frexkuena**  
zugandik  
hurbilago

Bittiria, 67 - © 637264

# Herriko parrokiako meza eman dute Euskal Telebistan

Hiru larunbatetan grabatu eta igandetan eskaini dute

JOSUNE ETA ISABEL

Euskal Telebista herriko meza grabatzen aritu da elizan hiru larunbatez segidan. Gero, ondoko hiru igandean eskaini dute telebistan.

Lehenengo grabazioa ekainaren 29an izan zen eta ondorengoak, uztailearen 5 eta 12an.


Meza eman baino lehenago, Sunbillari buruzko erreportai tiki bat eman izan dute.

## San Juan suak

Ekainaren 23an, Leku Eder karrikan berrogeita hamar bat haur, gazte eta heldu elkartu ziren, San Juan bezpera ospatzeko. Hiru su eder piztu zituzten, baita adin ezberdinetako jendearendako.

## Bidasoako Izokia

Nafarroako Gobernuko Ingurugiro Sailak



Jon Bertiz trafiko istripuan hil zen

## Atsekabea Jon Bertiz gaztearen heriotzarengatik

19 urteko gazte sunbildarra auto akzidente baten ondorioz hil egin zen joan den uztailearen 2an, Doneztebetik Sunbilla alderat heldu zelarik. Momentu garrantz hauetan bertso hunkigarria eskaini dio Jaione Otxandorenak: *Herrian eta kanpoan ere nola zinen ezaguna horregatik nabaria da utzia duzun hutsuna azken agurra eman beharra zeinen momentu astuna aldegin zendun eguna hain tristea ta iluna ahaztuko ez duguna izugarria zu gabe orain dagoen iluntasuna ixurritako malgo guztiak zuretzat dira laguna.*

'Bidasoako Izokia' izeneko bideoa karrikaratu du. Bideoaren helburua, izokiaren bizimodua ezagutzera emate

tea eta arrain hau berreskuratzeko egiten ari den lana erakustea da. Bideo honen 750 kopia egin dira, horietatik

500 gaztekeraz eta gainerakoak euskaraz. Argitalpen Fondoan salgai dago, 1.000 pezeteren truke.

## Pierola eta Txoperena garaile pala txapelketan

Almandozko Pierola eta Igantziko Txoperenak osatzen zuten bikotea txapelketa suertatu da Erreka Kirol Elkarteak antolatutako Pala Txapelketan. Ekainaren 28an jokaturako finalean, Luzaideko Etxarri eta Mugairiko Pernauteri 35 eta 22 irabazi zieten Almandoz eta Igantziko txapelketa. Hirugarren postuan Retegi eta Estanga eratsundarrak gelditu ziren, Hondarribiko Susperregi eta Izetaren aurrean 35 eta 30 nagusitu ondotik.

Txapelketa honetan gehienez ere 20 bikotek hartzen ahal zuten parte eta txapelketa 40.000 pezeta-ko saria, txapela eta trofeo eraman zituzten. Bigarrenak, berriaz, 20.000 eta trofeoak eta 10.000 pezeta eskuratu zituen hirugarren sailkatuak. Erran behar da txapelketa hau antolatzen Erreka elkarte ibilbada ere, Doneztebe-ko Udalak, Euskadiko Kutxa, CAN eta Nekazari Kutxa banketxeek eta Titi, Belarra, Irrintzi eta Ameztia ostalduen ere diruz lagundu dutela.

**BELARRA**  
OSTATUA - JATETXEA  
Ameztia karrika • DONEZTEBE  
Tfn: 45 03 06

**ZALAIN**  
JATETXEA  
EGUNEKO MENUA ETA KARTA  
Zalain Auzoa  
© 63 11 06  
BERA  
**Boda eta banketeak ematen dira**

**ARIN** ASEGURUAK

- Kotxeak
- Kamioiak
- Etxebizitzak
- Enpresak
- Istripuak
- Bizitza
- Aurrezkia
- Bertzeak

Parrokia 21  
Tel.-Fax: 450266  
DONEZTEBE

**APARAN, S. A.**  
BRIKOLAIA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mobleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mobleak eta osagarriak
- KIT mobleak, esku-erremintak, etab...

Tel.: 450 133  
451 541  
Faxa: 450 334  
DONEZTEBE



# INEM eta hiltegia dauden tokian autobus geltokia egingen du Doneztebeko udalak

Lan-bulego berria 'maestruen etxean' jarriko dute

**TXEMA ALDABE**

Baztango Hiltegia martxan jartzeko espe-roan daude Doneztebe-ko Autobus Geltokiaren obrak hasteko.

Izan ere, bitarte ho-rretan nahitanahiezkoa da Doneztebeko Hilte-gia martxan edukitzea inguru honetako hara-kinek erabili ahal iza-teko.

Horrela, bada, Baz-tango Hiltegia irekitze-rakoan Doneztebekoa bota egingen dute eta bai-ta INEMeko bulegoa ere. Orube horretan, Autobus Geltokiaren-tzako lekua prestatuko dute. Obrak berandue-nik iraila aldera hasiko direla espero da.

INEMeko bulego ber-ria 'maestruen etxea' izenez ezagutzen den horretan kokatuko du-te. Etxe hori Donezte-beko herriarena da, eta udalbatzak ahobatez onartu egin du INEM-eko bulegoa hor jartzeko dagoen proiektua. Dagoeneko hasiak di-ra obra egiten eta udaz-kenarako bukatzea es-pero dute.



**Konfirmazioa Saldiasen**

Ekainaren 7an, Saldiasko elizan bederatziz gazte konfirmatu zituen Fernando Sebastian Iruñeko apezpikuak: Usoa Ezkurra, Abel Dominguez, Zorion Ezkurra, Xabier Telletxea, Garbiñe Mariezkurrena, Leire Mitxelena, Miguel M<sup>a</sup> Urrutia, Imanol Etxeberria eta Gorka Jorajuria. Ondoren, Saldiasko Herriko Ostatuan ederki bazkaldu zuten eta umorea ez zen falta izan.

**Martin Larraza eta Maritxu Zubikoa maisu-maistrak omendu dituzte**

Herriko besten ba-rrean omenaldi hun-kigarria eskaini zitzaion hainbat urtetan eskola-ko maixu-maistra izan-dako Martin Larraza eta Maritxu Zubikoa ira-

kasle jubilatuei.

Omenaldia frontoian burutu zen eta alkateak, painuelo gorriarekin ba-tera, insignia eta plaka bana eskaini zien La-rraza eta Zubikoari.



**flash**

**Beintza-Labaien**

Urte honetako udal aurrekontuak onartu berri ditu udalbatzak. Denetara 48.874.217 pezetako sarrera-ir-teerak izanen dira. Aurtengoz ez da inbertsio berezirik egiteko asmorik, ka-pitulu horretako za-tirik haundiena men-diko pistak egiteko erabiliko baita.

**Oitz**

Beintza-Labaienen bezala, Oitzen ere onartu berri dituzte udal aurrekontuak. Denetara 55.400.807 pezeta. Inbertsioei dagokion kapituluan 25 milioi inguru dau-de. Hoietatik hamar, iaz Herriko Etxean egin ziren obrak or-daintzeko erabiliko dira eta gainerako di-ruak obra tikiagotan.

**Laxoa Elkarte**

Baztan-Malerrekako Laxoa Txapelketa antolatze agatik 25.000 pezetako laguntza eman dio el-karte honi Donezte-beko udalak.

**Obrak egiteko langileak**

Doneztebeko udalak 1997an egin behar di-tuen obrak gauza-tzeko ofiziale bat eta bi peoi kontratatu di-tu. Ofiziale lanetan Jose M<sup>a</sup> Olazar Be-reau arituko da eta Mikel Bertiz Irigoien eta eta Francisco Irigoien Arretxea, peoi lanetan.

**FUNERARIA ZERBITZUAK  
DONEZTEBEN**



**MALDAERREKA, S.L.**

24 ordutako zerbitzua  
Iruñea-Donostia-Irungo ospitaletatik  
edozein herritara trasladoak  
Tfnoa: 63 74 04 • LESAKA  
Tfnoa: 45 04 75 • DONEZTEBE



**SANTAMARIA  
Jatetxea**

Espezialitatea euskal sukaldaritzan  
Eguneko menua eta karta  
Nagusia 30, Tf.: 45 00 43 - DONEZTEBE



**AMEZTIA  
Jatetxea - Hostala**

Espezialitatea euskal sukaldaritzan eta pintxoetan

Tfnoa: 450028 • DONEZTEBE

**ITUREN**

**Ortzirala, uztailak 18**

**9etan** txupinazoa. Gero kalejira trikitilari eta txistulariekin. **12,30etatik 4etara** dantzaldia JATOR taldearekin.

**Larunbata, uztailak 19**

**10etan** kalejira trikitilari eta txistulariekin. **12etan** plater tiraketa txapelketa herriarrentzat. **5etan** mus txapelketa. Arratsaldez eta gauzez dantzaldia GAUBELA taldearekin.

**Igandea, uztailak 20**

**10etan** kalejira trikitilari eta txistulariekin. **12etan** Meza Nagusia. **1etan** pilota partiduak zonaldeko pilota eskolako gazte hauekin: Andiarrena-Babaze, Saldias-Apeztegia II. ren kontra. Atxa-Otxandorena, Leiza-Almandozen kontra. Arratsaldez eta gauzez GAUBELA taldea.

**Astelehena, uztailak 21**  
**Haurren Eguna**

**10etan** kalejira trikitilari eta txistulariekin. **Goiz-arratsaldez** haurrendako jokuak: Standar puzgarriak eta kotxe ibilaldia. Akitzeko, plazan txokolte-jatea. Arratsaldez eta gauzez GAUBELA taldea.



Urte hasieratik hasten dira iturendarrak motorrak berotzen.

**Asteartea, uztailak 22**

**10etan** kalejira trikitilari eta txistulariekin. **2,30etan** urtero bezala, herri bazkaria, giroa eta umorea trikitilarietara alaituz. Ondoren, ohitura galdu gabe, kalejira. Arratsaldez eta gauzez dantzaldia MODESTOrekin. **4etan** 'Pobre de mi' eta besten akabaila.

Mendaur eguneko erromeriak ere, besteren tentsioa mantentzeko balio du.



ONGI PASATU HERRIKO BESTAK

**ETXANDI TXOKO**  
**jatetxea**

Bazkari, afari eta gosariak

ITUREN / Tfnoa: 45 04 91



*Iturengo Udalak*  
*Besta zoriontsuak opa dizkizue*  
*Iturendar eta bisitari guztioi*

**ITYRENGO**  
**ZYRGINDEGIA**

Besta onak pasa!

© 450327  
ITUREN



**AURTIZKO OSTATUA**

Taberna  
Logelak  
Jatetxea



XABIER & LURDES

(948) 45 04 77

**Berezitasunak**

Arrain eta mariskoak parrillan

**ALTXUNEA**  
**ERRETEGIA**



**ITUREN**

Pazi zopak aurrez eskatuta  
Tfnoa: (948) 450410





Larunbatean izanen da urtero egin ohi den zikiro jatea. Eta ez da ez, animaziorik faltatuko.

Argazkia: Xuri IBARRA

**Ortzeguna, uztailak 24**  
**5etan** haurrendako jo-koak. **8etan** suzuria eta ezkil jotzea trikitilari-ekin. Ondoren, herriko jatetxeetan pazin-zopak. Gero antzerkia. **12,30etan** dantzaldia Ramon Mitxelena akordeolariarekin.

**Ortzirala, uztailak 25**  
**Santiago Eguna**  
**9etan** argi-soinuak trikitilari-ekin. **11etan** Meza Nagusi kantatua. **12,30etan** bazkalaurrekoa. **5,30etan** XX-XIII. Mus Txapelketa eta berendua. **Arratsaldez eta gauez** dantzaldia

GAUBELAtaldearekin. **Larunbata, uztailak 26**  
**9etan** argi-soinuak trikitilari-ekin. **12etan** herriko toka txapelketa. **2etan** zikiro jatea Ramon Mitxelena akordeolariarekin. **Arratsaldez eta gauez** dantzaldia GAUBELA tal-

dearekin. **Igandea, uztailak 27**  
**9etan** argi-soinuak. **10etan** plater tiraketa herrikoendako. **5etan** futbito txapelketa. **6etan** esku pilota partidua. **Arratsaldez eta gauez** dantzaldia GAUBELA taldearekin.

## Aranoko Santiago jaiak uztailaren 24tik 27ra

### Osteguna, uztailak 24

**12etan** altxaferoa piztuko da Herriko Etxeko balkoian, aurtengo jai-emaneraz emanaz. **12,30etan** mus txapelketa San Roke soziedadean.

### Ostirala, uztailak 25

#### Santiago Eguna

**10etan** kalejira trikitilari-ekin. **10,30etan** Meza Nagusia. **12etan** kadete mailako pilota partidua: Zabala-Mendizabal, Garikoitz-Santa Cruzen kontra. Ondoren, Arano eta Goizuetako pilotari afizionatuen arteko ohiko partidua: (Gascon-Zabala, Olaiola II-Berroetaren kontra. **6etan** aizkolarien erakustaldia: Arrospide-Olasagasti. Harri jasotzea: Perurena aita-semeak. Bertsolariak: Egaña eta Sorozabal. **Arratsaldez eta gauez** trikitixa eta gaupasa ETZAKIT taldearekin. **12etan** kantaldia Erramun Martikorenarekin.

### Larunbata, uztailak 26

**10etan** kalejira Goizuetako trikitilari-ekin. **11etan** Meza jubilatuen ohorez. Ondotik, hamaiketako Gure Ametsa tabernan. **12etan** poteo herrikoia eta toka. **1etan** afizionatuen arteko pilota partidua: Oiaga-Mendizabal, Esnal-Uzkudunen kontra. Ondotik jubilatuen bazkaria Herriko Etxea tabernan. Bertan izango dira Lazkano eta Agirre bertsolariak eta Goizuetako trikitixa. **4etan** Plater Tiraketa. **6etan** Gorritiren show eta txokolate jatea. **8,30etan** KAMIO taldearen kontzertua. **10etan** ohiko oilasko-jatea San Roke soziedadean (txartelak salgai uztailaren 24a bitarte) eta zozketa. Ondotik, MUXUTRUK trikitixa taldearekin gaupasa.

### Igandea, uztailak 27

**6etan** Munduko Malabaristenak taldearen "Jaberik gabeko zopa-ontzia" antzeslana, jai-emaneraz emanaz.

## Hilarion Jatetxea


Arrain, marisko eta bertako produktu-eta espezializatuak

© 45 00 03 • ELGORRIAGA

## ETXEBERRIA ZURGINDEGIA

Ongi pasa bestetan!

© 45 03 10 • ELGORRIAGA



ARANOKO JAIK

**GOIZUETA**

# Musika Eskolan izena emateko epea zabaldu dute

Edozein adineko herritarrek izena eman dezakete

**ESTEBAN AROZENA**

1997-98 ikasturtean udal Musika Eskolan ikasi nahi dutenek izena emateko epea zabalik daukate hilabete honen bukaera arte. Horretarako Herriko Etxera joan eta apuntatzea nahiko da, solfeoa eta zein musika tresna ikasi nahi den esanaz aldeberean.

Bukatu berria den kurtsoaren datu batzuk aipatuz esan, guztira 44 ikasle izan dituela eskolak. Hauetatik 34 hizkuntz musikala edo solfeoan ari dira. Instrumentoei dagokionez, gitarra 15 ikasle izan dira; txistuan 11; trikiti-xan 8; kordionan 3; eta azkenik pianoan beste 3. Esan behar da ere, oraindik askok Musika Eskolaren jarduera haur

edo gaztetxoei mugatua dagoela uste izan arren, hori ez dela horrela, edozein adineko herritarrek izena eman bait dezakete bertan.

## Judo

Azken denboraldi honetan herrian bizi den Ane Zinkunegi oiartzu-arraren Judo Eskolako 20 ikaslek hilaren 6an egindako erakuspen batekin bukaera eman zioten aurtengo ikasturteari. Oinarrizko ikastaroa egin dute herriko neska-mutikoei, eta gerriko horia eskuratua dute dagoeneko.

IVEFen lizentziatua izateaz gain, judoko gerriko beltza bigarren Dan da Ane Zinkunegi. Beraz, badu zer erakutsia ikasi nahi duenarentzat.

**Judo Eskolako ikasleak eta irakaslea.**



**Omenaldiak** Arkupeak Jubilatuen Elkarteak ekainaren 27an hiru goizuetar eta bi aranoar omendu zituen. Pauleneko Gabino eta Maritxo eta Mairitzeneko Joxe Mari eta Madalena aurten urrezko ezteiak ospatu dituztelako, eta Sarrango Dolorex 85 urte bete dituelako.

**ARESO**

# 72,6 milioiko aurrekontua izanen du aurten udalak

Urbanizazio lanek dute pisurik haundiena

Eluseder industrialdeko urbanizazioaren bigarren fasea egiteko 17 milioi Pta. erabiliko dira, eta beste 19, etxebizitza berriak eginen diren tokia urbanizatzeko. Bi obra horiek dira gastuaren zatirik haundiena eramanen dutenak. Diru-sarreretan ere, bi obra horientzatik kobratu

tuko diren kuotek osatuko dute zatirik haundiena, 18 eta 22 milioi Pta. alegia. Iazko kontuak, bestalde, 7 milioi pezeta inguruko superabitarekin itxi ziren.


Bestalde, azken pleanoan etxebizitzak egiteko 8.395m<sup>2</sup>ren reparzelazio proiektua aho-batez onartu zen. Orain,

hilabete batez jendeaurrean egonen da proiektua udaletxean nahi duenak alegazioak egiteko.

## Auzolanak

Udalak auzolaneri buruzko ordenantza onartu du behin betikoz.

Beste gai batera pasatuz, Euskara Zerbitzuaren Mankomunitate



Elusederreko bista

## Bataioak

Uztailaren 6an bi bataio ospatu ziren Areson. Leire eta Aritz izan ziren protagonistak.

# Udaletxean Espainiako bandera jartzea nahi du Guardia Zibilak

Alkateak epailearen eskutan utzi du azken erabakia

JOSEBA AZPIROZ

Hilaren 9an, Guardia Zibilak Leitzako Udalean izan ziren, Espainiako bandera mastilean jarrita egon behar duela agintzen zuen Gobernuko Delegatuaren idatzia eramatera (gaur egun ikurriña bakarrik egoten da eta festatan herrikoa eta Nafarroakoa jartzen dira). Hurrengo egunean, espainola jarri ez zuten, berriaz joan ziren, «*presunta comisión de un delito de desobediencia a la Autoridad, así como posible ultraje a la enseña nacional*» gerta izan daitekeela eta Alkatea eta Idazkaria kuartelillora zitatu. Bertara joan eta Udalak 1991 eta 1996. urteetan hartutako erabakien ziurtagiriak aurkeztu zituzten. Alkateak, ikurriña bakarrik jartzearekin ilegaltasun bat egiten ari zela ba al zekien galderari, «*baietz, baina badugula ikurriñaren erabileraren beste interpretazio bat*» erantzun zien.

Hilaren 11n eginda-

ko dilijentzien berri epaileari emanen zietela esan zien alkateak eta haren eskutan gelditzen zela hortik aurrekoa. Urte guzian ez eta penta aurrean horrelakotan hastea ez al da adierazgarria?

## Oskar Astibia errugabea

Zazpi hilabete bigarren graduaren espetxean igaro ondoren eginiko epaiketan, Oskar Astibia eta Igor errugabeak dirrela aitortu zuen epaimahaiak. Nahiz eta epaian, forentsearen informea ez zandaren ondorioz afektatuak gertatu ziren Oskar eta Igor ikusi gabe egin zela argi gelditu, fiskalak hiru urteko kartzela zigorraren eskaera mantendu zuten. Eskerrak oraingo honetan abokatuak eta Jabier Eskubi medikuak hori agerian utzi zuten. Beraz, ongietorria eman ahal izanen diogu Oskarri.

## Gas naturala

Espedientea urteetan geldirik egon ondoren (erakusketa publikoa 1992. urtean egin zuten), Enagasek gas na-



## Joseba Urkiola Euskal Herriko txapelidun

«Amatxo» abestuz, Euskal Herriko Haur Kantu txapelketan garaile suertatu zen Joseba Urkiola Miarritzen, ekainaren 18an burututako finalean.

Artxiboa

turala ekartzeko desjabetzearen prozedurarekin aurrera eginez, hilaren 4ean, afektatutakoekin bildu eta okupazioaren aurreko ak-

tak sinatu zituzten. Partikular gehienek traza doaren aldaketak eskatu zituzten, kalte ahalik eta txikiena izan dezaten.

## flash

### Musika eskolako matrikula

Aralar Musika Eskolan matrikula egiteko, uztailaren 31 baino lehen izena eman behar da Karrape Irratian edo Euskaltegian, 10,30etatik 11,30ak bitarte.

### Herriaren garbiketa

Udalak bi urtez luzatu du udal eraikinen (udaletxea, eskolak, haurtzaindegia) eta kaleen garbitasuneko lanaren kontratua orain arte daramatenekin. Egindako bi proposamenetik kale garbitasunerako makina bat erostea proposatzen zuena onartu zuen Udalak. Urtero 15,8 milioi ordaindu dira zerbitzu honengatik.

### Eskolako atezaina

Ekainaren 27ko batzarrean, Udalak Eako eta UILko Beatriz Zabaleta eta Silvestre Zubiturren aldeko botoekin eta HBko eta Gerardo Caballeroen abstentzioarekin, Martin Mari Astibia, eskolako atezaina fijo egitea erabaki zuten. Dirla hilabete batzuk udalak lanpostua lehiketa-oposaketa bidez betetzeko deialdia onartu zuen baina horren ondorioz izan ziren erreklamazio, bilera eta eskaeren ondorioz, ez zen aurrera jarraitu. Azkenik, Martin Mari Astibia epaitegiari aurkeztutako eskubide laboralen demandan adierazten zuena onartzu, aipatutako erabakia hartu zuten.



## LANCHAS

- Parketak - Tarimak
- Kutxillatzea eta bernizatzeak
- Estaldura Orokorrak

Bera © 630735  
Irun © (943) 622305

## Elizatz

ERLOJUTEGI  
BITXITEGIA

Nafarrentzat  
prezio bereziak

Landetxe Enparantza © 943.492698 OIARTZUN




Basa Kabi

Basa Kabi baserrian bihurtu da.  
Baserriko menua.....2.200 pta.  
Sagardotegiko menua...2.950 pta/per.  
Banabar jatea .....1.900 pta.

Tel. 510125 • Faxa: 610965  
LEITZAko gaina

## muñeca de Trapo



IRUN

Luis Mariano, 35  
Tel.: (943) 62 52 55

**BAZTAN**

# Patxi Oiartzabal izanen da Bertizko Turismo Partzuergoko presidentea bertze urte batez

Quoruma izateko behar den asoziatu kopurua elkartu zen bigarren deialdian

TTIPI-TTAPA

Turismo Partzuergoaren urteko Batzar Orokorra, hasieran, ekainaren 23an zegoen deitua. Egun horretan, ordea, quorum nahikorik ez zela eta, uztaialaren 2rako utzi zen. Bigarren saialdian hogeitalau ordezkari baino gehiago elkartu zirenez, kopuru aldetik dagoen baldintza gainditu zen batzarraren ahal izateko.

Iaz ere gauza bereztsua gertatua baitzen, Partzuergoaren estatuak aldatzea onartu zen batzarrean. Horren arabera, lehenbiziko deialdirako quoruma orain dagoen bezala mantenduko da, baina bigarren deialdian, 12 ordezkari elkartzea nahikoa izanen da batzarrean ahal izateko.

**KONTUAK ETA AURREKONTUAK**

Iazko kontuak onartzea erabaki zuen batzarrak. Baita aurtengo aurrekontuak ere, denetara 25,7 milioi pezeta. Horietatik 9,5 gastu arruntak dira (langileen soldatak, bulego gastuak, dietak...), eta gainerako 16,2 milioiak, aparteko gastuak dira. Azkeneko hoietan, hauek dira aipagarrienak: *Montaña Navarra* proiektua 4,5 mi-



Patxi Oiartzabal

lioio. Publizitate eta sustapena 4,2 milioi, Kultur Dinamizazio Programa 3,6 milioi, Bertako Produktuen Feriak anto-

latzeko milioi bat, eta bertze bat mendiko ibilbideak zaindu eta mantentzeko.

Diru sarrerei dagokionez, Nafarroako Gobernutik 12 milioi espero dituzte, asoziatuak dauden partikular eta udalen kuotatik 7,5 milioi, eta Cederna-Garalur agentziatik 4 milioi. Gainerakoa material desberdinen salmentatik eta alokairuetatik bilduko dute.

**URTEKO KUOTAK**

Asoziatuen kuota ez ga-

restitzea erabaki zuen batzarrak. Horrela, elkartetako asoziatu bakoitzak 8.000 Pta. ordainduko du (BEZa sartu gabe), eta Udal bakoitzak, bertzalde, 215 Pta./biztanleko.

**PRESIDENTEAREN HAUTAKETA**

Patxi Oiartzabal, Baztango alkateak segituko du presidente karguan. Udal ordezkariak dagokionez, berekin batera egonen dira Administrazio Kontseiluan, Arantza, Bera, Doneztebe, Elgorriaga, Ituren, Lesaka, Sunbilla eta Urdazubiko udal ordezkariak.



**Nuevo Baztan herriko ordezkariak bisitan**

Nuevo Baztan, Madrilgo herriko Ondare Historikoaren Elkarteko ordezkariak bisitan izan ziren ekainaren 28an. Juan de Goienetxe arizkundarrak sortu zuen herri hori XVIII. mendean eta 1941ean 'monumentu historiko-artistikoa' izendatu zuten.

Argazkia: Diario Noticias

**flash**

**Etxebizitzak erosteko laguntzak**

Nafarroako Gobernuak 25,8 milioi pezeta dirulaguntzak banatuko ditu Almandoz eta Lekaroz Babes Ofizialeko etxebizitza erosi nahi dutenen artean. Laguntzak, etxe hauek egin dituzten enpresa promotoreen birtartez emanen dira.

**5 milioi pezeta Xorroxinentzat**

Nafarroako Gobernuak 5 milioi pezeta dirulaguntza emanen dio aurtengo Xorroxin Irratiari, irratsaioetan eskuragarerabiltzeko. Aipatu dirulaguntza, Baztango Udalaren birtartez emanen dio gobernuak Xorroxini.

**Turismo bulegoa**

M<sup>a</sup> Jesus Goñi Otxandorena elizondarra arituko da Turismo Udal Bulegoan uztaialaren 14a arte.

**Baztandarren Biltzarra**

Dagoeneko aski ezaguna denez, aurtengo ez da Baztandarren Biltzarrik ospatuko. Erabaki horren arrazoiak herriz herri eskaintzen ari dira elkarteko kideak.

**Kukux aisialdi taldean**

30 bat haurrek eman dute izena uda honetarako.

**OPS Ingenieros S.L.**  
 • Topografi lanak: Lur neurketak, balorazioak.  
 • Nekazal proiektuak: Bideak, ur deposituak, etxebizitzak, granjak, nabeak...  
 Barañain Etorb.2 • IRUÑA • Tel: 267453-267602

**Gierresenea**  
**OSTATU - JATETXEA**  
 Jaki Tipikoak • Etxeko Giroa  
 Iturriotz Auzoa • © 592043 • OROÑOZ-MUGAIRI

**BAZTAN**


# Balleko Etxeak ere bat egin du COFES-Haizeako langileen eskariek

UPNk kontrako botua eman zuen

TTIPI-TTAPA

Inguru honetako bertze hainbat erakunde, elkarte eta taldek egin duen bezalaxe, Balleko Etxeak ere bere elkartzuna adierazi die Elizondoko COFES-Haizeako langileei. Udaltzak bat egin du Osasun Etxeko langileek igorritako idatziarekin, nahiz eta UPNk kontrako botua eman.

Famili Orientabide eta Sexu Heziketarako Zentroek gaur egun arte eskaini duten zerbitzuaren alde eta Plan berriaren kontra azaldu da Balleko Etxea. Izan ere, «*plan honek zentruen oinarritzko funtzioa ez baitu bere gain hartzen, hau da, hezkuntza, prebentzioa eta osasunaren promozioa*». Erabelean, gaur egungo langile kopurua murriztearen kontra agertu da udala, honek «*zuzeneko eragina baitu beraien independentzia eta autogestioa eta zentruak herritarrei eskaintzen dien zerbitzuaren kalitatea dagoelako*».



## Eskualdeko pilotariak Estatu Batuetan

Maiatzaren 23tik ekainaren 3ra Estatu Batuetako California inguruan ibili dira Oronozko Iñaki Otxandorena, Aurtizko Kepa Leiza, Lesakako Jesus M<sup>o</sup> Almandoz eta Almandozko Mikel Atxa pilotariak. Partidu batzuk eskaini zituzten bertako frontoi eta trinketetan eta Bakersfield hiriko frontoi berriaren inaugurazioan ere parte hartu zuten. Beraiekin batera, garai batean pilotariak izandakoak ere izan zituzten, erretratoan ageri den Jose Manuel Rekondo bezala. Arazorik haundiena, eguraldi beroa izan dela adierazi dute pilotariak.



▼ flash



◆ **Jose Miguel Gaztelu detenitua**

Ustez Ortega Lararen bahiketarekin zeri-kusirik baduela-eta, Jose Miguel Gaztelu atxilotu zuen guardiazibilak. Sortzez elizondarra da, nahiz eta Bergaran bizi den aspaldi honetan.

◆ **Arthur Miller**

antzerkigile famatua Zugarramurdi eta Baztanen barna ibili da egunotan. Iruñeko Sanferminetara etorrria zela aprobetxatuz, Zugarramurdioko lezeak bisitatu zituen *Las brujas de Shalem* antzeslanaren egileak. Baztango liburutegirako liburu bat ere sinatu zuen.

◆ **Erakusketak**

Domingo Etxandiren omenezko erakusketak 28a arte zabalik izanen da Arizkunean. Tomas Sobrino margolariarena 19an zabalduko da.

Okindegia Jatetxea

# Uxoa



Polig. Ind. Ordoki Tfn.: (948) 45 34 03 31713 ARIZKUN

◆ **Okindegian**

- Ogi artisaua, eguneko eta txapata

◆ **Jatetxean**

- Menua eta karta (asteburuetan)
- Espezialitate parrilan erretako jakietan



*Enkarगतुं गेरो,  
bildotsa ogi-labeen erre.  
Goxo-goxoa!*

# IPINGI

ZATOZ ETA IKUSI  
Santiago 88, Tfn: 580939  
ELIZONDO

**Uztailaren 21etik aitzinera**  
**MERKEALDIAK**  
*Arropa eta teletan*

**Ezkontza bazkaritan ematen diren  
orotgarriak egiten ditugu**

**URDAZUBI**

# Bertako produktuen feria egin da lehen aldiz

Monastegiko klaustroa erabili zen saltzaileen erakusketa egiteko

MARGARI ETA KORO

Igande goizeko 10etatik goiti, saltzaile eta bisitari andana bildu zen Urdazubiko plaza eta Monastegi inguruetan.

Ogi, pate, marmelada, gasna, pastiza, talo, sagarno eta jan-edatekoak diren bertze hainbat gairekin batera, zeramikak, jertseak, pomadak eta gisa bereko produktuekin feria antolatua zegoen Monastegiko klaustroan. Denetara 22 parhartzaila elkartu ziren.

Ahatik, ez zen izan feria igande goizeko animazio bakarra. Errate batera, jendeak ikusi ahal izan zuen monastegiaren kanpoko aldean nola erretzen den zikiroa eta zer gisatara ehotzen zen artoa lehengo garaietan. Eta feria eta erakustaldiak batera, jendearen gozamenarako akordeoi emanaldia ere izan zen goizeko 11ak aldera.

Antolatze-lanak Urdazubiko Udalaren esku egon ziren eta laguntzaile izan ditu Cederna-Garalur elkarteak, Bertizko Partzuergo Turistikoa eta Nafarroako Gobernua.



**SARA**

# Aterbe berria eraikitzen ari dira plazan musikarientzat

Aurtengo bestetan estrenatuko da eta taldeek eskatzen duten izariak ukanen ditu


JACQUELINE ETA MIXEL

## Udako euskaltegia

Herriko Etxeak erabaki du musika taldeentzat aterbe baten eraikitzea plazan lehena-gokoa hondatua izanez. Duela guti herriko langileek obrak hasi dituzte eta jakin dugunez oraindik izari egokiak ukanen ditu, taldeek eskatzen duten bezala. Aurtengo bestetan estrenatuko da. Ikusiko...

Azken urte hauetan ohiak garen bezala Donostiako hiru euskaltegi bateratu dira barne-egiteko Sarako Eskola publikoan. Ikastaldiak uztailearen erdian hasiko dira hamabortz eguneko txandak eginez eta agorriaren amaieran bukatuko dira.

Ezker aldean ageri da aterbe zaharra



## Aurtengo Pastoralatharratzen

Atharratze Jauregian emana izanen da uztailearen 20an eta agorriaren 3an.

## Zazpiak Bat Elkartearen besta larunbat honetan

Larunbat honetan, uztaileak 19, Zazpiak Bat dantza taldeak bere urteko jai nagusia ospa-

tuko du. Ekitaldiak goizetik abiatuko dira eta bertan jateko parada izanen da eta

arratsean afaldu ondoan, dantza eta bertze jauziak emaiten ahalko dira. Bihara-

munean, eskulan azokan, euskal ekoizpen asko aurkitzen ahalko dira eta denen gustukoak ere segur.



**BERTIZARANA**

# Narbarteko Kultur Astearen barnean hainbat ekitaldi gauzatu dira


Guraso elkartearen eskutik Kantaokea, pilota txapelketak, erakusketa...

ESTHER ARRETXEA

Narbarteko Guraso Elkarteak urtero antolatzen duen Aste Kulturalean ekintza desberdinak burutu dituzte. Igande goizean emakumeek eskulangintza ikastaroan egindako lanen erakusketa burutu zuten. Meza ondoren, herriko haur eta gazte txoek beraien dantzak eskaini zituzten.

Astelehenean, haurren esku pilota txapelketaren finala jokatu zen. Ismael Oteiza izan zen txapelduna, Diego Perez bigarren, Evaristo Telletxea hirugarren eta Iñaki Berde laugarren.

Emakumezkoen pala txapelketan berriz, Arantxa Juanaberria eta Maite Mitxelenak osatzen zuten bikotea izan zen aurtengo txapelduna; Esther Arretxea eta



Kantaokearen une bat, emakumezkoen pala txapelketan saritutakoak eta haurren esku pilota txapelketako lau lehenbizikoak

Elisabet Juankikoa bigarren, Amaia Elizalde eta Rosa Urroz hirugarren eta Maite Iriarte eta Juana M<sup>a</sup> Bidegain laugarrenak.

Partiduen ondoren, kurtsu bukaeran haur guzuen urtebetetzeak ospatzeko ohitura denez, guraso elkarteak hameketakoa eskaini zuen.

Bertzalde, eskolako haurrek Kantaokean ere


parte hartu zuten. Orokorrean, maila ona izan bazen ere, Itxaso Arretxea suertatu zen txapeldun, Ane Berde bigarren eta Joseba Elizagoien hirugarren.

Azkenik, eskola urtea akitzeko, Goenkale filmatzen den Arraldera eta Igeldora ateraldia egin zuten, bidenabar hondartzara joateko prohexutz.



**ARMUA**  
**Jatetxea**  
Zugarramurdiko karretera 3. Km  
Tfnoa.: 59 91 31 - URDAZUBI

**HERRIKO ETXeko EDANTEGIA**  
Michel eta Kattin  
Guerendiain  
Tfnoa.: 59 54 25 19 • SARA

Asteartetik ortzilara Betatik aitzinerat  
Larunbata eta bestia egunetan  
© 45 21 21 • LEKAROZ

**ttipi-ttapa**  
Bidali TTIPI-TTAPA  
herritik kanpo  
bizi diren  
lagun edo  
familiakoei  
Bakar bakarrik bidaltze  
gastuak ordaindu behar dira.  
Eskatu informazioa. **631188**

**OLARI**  
**Jatetxea**  
Tfnoa: (948) 45 22 54  
**IRURITA**  
\* Jatetxea haize egokituarekin hornitua



## EZKONTZAK

**Javier Jimenez Gabari** eta **M<sup>a</sup> Teresa Andrés Maqueda**, Zarrakaztelu eta Errioxakoa, uztailaren 7an.

**Jose Miguel Perez Apeztegia** eta **M<sup>a</sup> Teresa Lopez Santxotena**, Baiona eta Elizondokoa, ekainaren 28an.

**Miguel Jose Arozena Etxeberria** eta **Juana M<sup>a</sup> Mitxeo Iriarte**, Almandozkoak, ekainaren 28an.

**Pablo Arozena Garro** eta **Miren Itziar Fagoaga Iurrtia**, Leitzakoak, ekainaren 21ean

## JAIOTZAK

**Rémi Errandonea**, Sarakoa, erearoren 11n.

**Olatz Martin Arregi**, Doneztebekoa, ekainaren 25ean.

**Iratxe Rekalde Organbide**, Amaiurkoa, ekainaren 14an.

**Imanol Azpiroz Goikoetxea**, Iruritikoa, uztailaren 1ean.

**Ainhua Nieto Satrustegi**, Aresokoa, ekainaren 19an.

## HERIOTZAK

**Pierre Agerre**, Sarakoa, uztailaren 3an, 86 urte.

**Jon Bertiz Ibarra**, Sunbillakoa, uztailaren 2an, 19 urte.

**M<sup>a</sup> Jesus Fdez. Izquierdo**, Elizondon, ekainaren 28an, 83 urte

**Antero Zubiri Etxandi**, Anizkoa, ekainaren 28an, 78 urte.

**M<sup>a</sup> del Pilar Olivera del Rio**, Elizondon, uztailaren 3an, 79 urte.

**Lorenza Iturriria Astiz**, Lekarozkoa, uztailaren 3an, 65 urte.

**Encarnación Agirre Inza**, Elizondon, uztailaren 4an, 89 urte.

**Sebastian Tisón Laseca**, Elizondon, uztailaren 4an, 75 urte.

**Laura Goñi Goñi**, Elizondon, uztailaren 1ean, 89 urte.

**Marina Beret Perez**, Leitzan, uztailaren 18an, 96 urte.

**Marcelina Almandoz Larrain**, Arantzakoa, ekainaren 29an.

**Pilar Iribarren Arrieta**, Urrozkoa, ekainaren 28an, 89 urte.

### ZORIONAK!

**Gure oparia ematean lehenak izan nahi dugu**



Haurtoa jaio izan eta berehala etor zaitez Iruñeko Kutxara. Saskitxo-aldatzaile hau, haur-garbitetarako produktuez bete, emango dizugu.

**Ex aiantzi familiarren liburuzka!**

**IRUÑEKO KUTXA**



**Lanerako eta denbora librerako**

**SAMPI ARAGON**

Leitzako errepidea  
 ☎ 450354 / 450759  
**DONEZTEBE**



## DATUAK.....

❖ Orain dela 21 urte sortu zen, Iruritan.

❖ 15 egunez Iruritako Batzarre salan ikusgai egon ondotik, igande honetan (uztailak 13) itxi ziren erakusketako atea.

❖ Bakarkako lehen esposizioa izan du hau, eta etorkizunean gehiago egiteko asmoa azaldu digu, Burlatako Kultur Etxean, Irunen...

❖ Iruñeko "Artes y oficios"-eko eskolan dekorazioa ikasten du egun, marrazketa eta pinturako adarretan.

❖ Uste baino jende gehiago agertu omen da erakusketan paratu dituen 29 koadroak ikustera.

TESTUA:  
ASIER GOGORZA  
ARGAZKIA:  
KARMELE TOLOSA

✍ Ana VILLORIA Iruritako margolaria

## "Gauza modernoak, bodegoiak eta paisaiak sartu ditut erakusketan"

### NOIZTIK DATORKIZU PINTATZEKO ZALETASUNA?

Betidanik gustatu izan zait, baino pinturarekin lehen kontaktua EGB-ko 5. mailan izan nuen, pintore batekin Burlatan klaseak ematen hasi nintzelarik.

### NORK ANTOLATU DU ERAKUSKETA HAU?


Ba...nik neronek. Herriko jendeak aspaldidanik aipatzen zidan ia noiz erakutsi behar nituen nere lanak, eta nik ere gogoan banuen nere herrian erakusketa egiteko. Horretarako egokiena Batzarre aretoa denez, ba, hantxen egin dut.

### ORDUAN HERRIKO JENDEARI BEGIRA IDEKI DUZU ERAKUSKETA?

Alde batetik bai, bainan inguruko jendea ere agertu da. Gainera, hemen, Baztanen, ez baduzu Arizkunenean egiten ez dago bertze erakusketa aretorik eta banuen gogoan Iruritan egiteko. Erakusketa ikusteko Iruritarat etorri behar zuen jendeak, eta hori herriarendako ere ona da.

### ZER MODUZKO HARREARRA IZAN DU PUBLIKOAREN ALDETIK?

Hagitz ona, astetartean espero baino jende gehiago etorri da. Inaugurazio egunean jende ugari etorri zen, gonbi-



«Aurten landu dudana aitetxien tresna zaharrak dira batez ere».

dapenak direla-eta, jende ezaguna... Astetartean lasai xamar ibiliko nintzela uste nuen, bainan ez da horrela subertu. Hagitz kontent nago alde horretatik.

### JENDEAK GALDERAK EGITEN DIZKIZU, EDO IKUSTERA BAKARRIK JOATEN DIRA?

Denetik dago. Batzuek interesa agertu dute, pot-

pourri gisako esposizioa delako; gauza modernoak, paisaiak eta bodegoi zaharrak nahastu ditut. Nik hasiera batean bodegoiak soilik paratu nahi nituen, aitetxien oroigarriak direlako, bainan sala horren haundia denez, 29 koadro sartu behar izan nituen hondarrerako. Hoietako batenbat saldu egin dut, gainera.

### ZE TEKNIKA ERABILTZEN DUZU?

Ba, pastel teknika (paper gainean eskuekin lantzen dut), pintura

akrilikoa, zera, oleoa eta akuarelak erabili ditut. Aurten gehien landu ditudan teknikak pastela eta akrilikoa izan dira.

### ZER NOLAKO GAIK AGERTZEN DIRA ZURE MARGOETAN?

Aitetxien kontu zaharrak zeuden erakusketan. Aurten landu dudana aitatxien tresna zaharrak dira gehienbat, buztinezko pitxerrak, esne-marmita zaharrak eta horrelakoak. Baina erretratoak ere sartu ditut eta gauza modernoak, denetik pixkot.

► *"Gainera, hemen, Baztanen, ez baduzu Arizkunenean egiten ez dago bertze erakusketa aretorik, eta banuen gogoan Iruritan egiteko."*

DATUAK.....

- 1 Eskualdeko jubenil mailako txirrinduriak biltzen dituen Sigma taldean ari da Unai Barazabal Bizarrenea etxeko azpilkuetarra.
- 2 18 urte bete ditu martxoan. Beraz, bigarren urtea du jubenil mailan.
- 3 Euskadiko txapelketan bigarrena izan zen Lesakan. Espainiako txapelketan zazpigarren postua eskuratu berria du Melillan.
- 4 Bederatzi urtetan hasi zen bizikletan Baztandarra taldean eta datorren urtean afizionatu talderen batean aritzea espero du.
- 5 Sprintetan aitzinean badabil ere, mendian hobeki defendatzen dela uste du.

TESTUA:  
AITOR AROZENA  
ARGAZKIA:  
KARMELE TOLOSA

**Unai BARAZABAL** Azpilkuetako txirrindularia

# “Hemendik urrira bitarte karrera gehiago irabaztea espero dut”

Melillatik etxera bueltatu berria da Unai Barazabal. Han Espainiako txirrindularitza txapelketa burutu da maila ezberdinetan eta azpilkuetarra zazpigarren sailkatu da jubenil mailan. «Bigarren bueltan bi erori izan nituen, ez zitzaidan gauza haundirik pasatu baina... halere, hor sartzea lortu nuen, nik espero nuen postu horietan». Oroitzapen hobe gorde du, halere, Lesakan maiztaren 25ean lortutako Euskadiko azpitxapelketaz, Bizkaiako Gerninal Martinezen gibeletik.

Melillakoa esperientzia berria izan da Barazabalentzat. Nafarroako selekzio guzia –kadeteak, jubenilak, afizionatuak eta neskak– autobusean joan zen eta baztandarra zen eskualdeko ordezkari bakarra. «Esperientzia arras ona izanda, arras ongi pasatu dugu. Profesionalekin ez dugu harremanik izan, gu han geunden azken egunean ailegatu baitziren, baina bai afizionatuekin eta beti zerbait ikasten da».

**«KARRERA BAT IRABAZTEA FALTA ZAIT»**

Aurtengoa urte ona izaten ari da Bizarrenea mutilarentzat. Lais-terkaldi aunitzetan a-



Urdiaingo Aitziber Saria irabazi berri du azpilkuetarrak

tzin postuetan helmugaratu da, zazpi aldiz bigarren eta hirutan hirugarren postuan. Halere, zertxobait gehiago nahi du Barazabalek. «Ongi nabil, baina karrera koxkor bat irabazte falta zait. Oraindik denboraldi luzea da, urriko lehen astera arte hiru hilabete geldi-

tzen zaizkigu eta bakarren bat irabazte espero dut. Hori nahi dugudenok». Eta lortu ere lortu du, elkarrizketa hau egin ondotik, uztailearen 8an, Urdiaingo Aitziber saria irabazi baitzuen.

Aurtengoa du azken urtea jubeniletan, eta datorren urtean, afizionatu talderen batean has-teko itzaropena eta gogo du. Horretarako ez zaio batere inporta aunitz kuidatzea, pasatu berriak diren herriko sanferminetan bezala.

«Egunotan hiru-laukarrera izan ditut eta ez daukat besta egiteko denborarik, arrunt guti egon naiz herrian» dio Unaiak.

Bere ezaugarriei dagokienez, «terreno guzietan ongi moldatzen dela» uste du. Halere, pisuz arina dela aprobe-txatuz –60 kilo inguru, bertzerik ez–, «mendian gustorago defendatzen naiz». Sprintean ere postu onak egin ditu aurt-en, baina «karrera bat irabazteko suerte pixko bat falta izan zait». ■

» Melillakoa arras esperientzia ona izan da, bi erori izan arren zazpigarren postua eskuratu baitut. Halere, Euskadiko azpitxapel-dun izateak oroitzapen hobe utzi zidan»

# Patxi Larretxeak bi txapel jantzi zituen Sanferminetako jaialdian

- Harrijasotzen iaz baino 7 jasoaldi gehiago egin zituen
- Jaime Etxegarai beratarrak iazko marka ondu zuen kozkor biltzen

Uztailaren Sean, Nafarroako zazpi txapel jokatu ziren Iruñean. Iaz bezala, Arantzan jaio eta Arraiozen bizi den Patxi Larretxeak bi txapel irabazi zituen. Kozkor biltzen, berriz, Berako Jaime Etxegarai txapeldunak iazko marka hobetzea lortu zuen sei segundutan. Gizonezkoen zaku laisterketan ere, Ultzamak 5 segundutan hobetu zuen.

Harrijasotze proban, 100 kiloko harrian jardun zuten, bi minutuko saioan. Larretxeak 28 jasoaldi egin zituen, iaz baino 7 gehiago. Donibane-Lohitzuneko Latacak 22 jasoaldi egin zituen.

Orga jokoan hiru kirolari aritu ziren norgehiagokan, 200 kiloko gurdiaekin. Berako Juanxo Petrirenak eraman zuen zapela, baina Etxegarai iaz eman zituena baino bi buelta guttiago emanaz. Bigarren Joxe Olano izan zen



Txapeldun guziak Burgoen plazan, proba bukatutakoan Argazkia: Egin

eta Zelaieta hirugarren.

Segidan, 18 kiloko ingudearekin aritu ziren minutu terdiko txanda bakarrean. Joxeantonio Bengoetxea arraiozta-rrak eraman zuen txapela, Telletxea iazko txapeldunak baino jasoaldi bat gutxiago eginaz. Lakostak 79 jaso-

aldi egin zituen eta Esteban Pikabea trontzalaria 78.

Lasto altxatzea izan zen ondotik. Lau partaideek 45 kiloko lastofardoa altxatu behar zuten 7 metrora, 2 minututan. Nafarroako txapelduna Eduardo Eugi igantziarra izan da az-

ken urteetan eta oraingoan ere ez zuen hutsik egin, nahiz eta iaz baino bi jasoaldi guttiago egin. Bigarren Bereau izan zen eta hirugarrena Xabier Sein.

Txinga eramaten ere, Patxi Larretxeak etxeratu zuen txapela, joan den urtean bezalaxe.

## Etxarriko Juan Jose Erdoziak irabazi zuen Nafarroako Hirugarren mailako aizkolarari txapelketa

Ekainaren 28an burutu zen Oibarren Nafarroako 3. mailako aizkolarari txapelketa. Sei aizkolarik hartu zuten parte eta bakoitzak 4 enbor moztu behar zuten: 45 ontzako bi enbor hasteko eta akitzeko eta kanaerdiko bertze bi enbor tartean.

Lehenengo txandan Jesus Manuel Otxandorena (Lezaun), Joxe Olano (Leitza) eta Ra-

fael Untxalo (Ituren) aritu ziren. Txanda honetan leitzarra nagusitu zen, 12' 16" denborarekin.

Bigarren txandan Juan Jose Erdozia (E-

txarri Aranaz), Jose Antonio Mindegia (Beintza-Labaien) eta Josetxo Telletxeak (Arraioz) hartu zuten parte. Txanda honetako irabazlea, baita txapelketako ira-

bazlea ere Juan Jose Erdozia suertatu zen, 11' 16" denborarekin. Beintza-Labaiengo Mindegia minutu erdi eskaseko abantaila ateratu zion.

DENBORAK ENBORREZ ENBOR						
Enbo.	Erdozia	Mindegia	Olano	Otxandorena	Telletxea	Untxalo
1.	02'09"	02'10"	02'02"	02'27"	03'09"	03'15"
2.	05'21"	05'38"	05'43"	06'14"	08'07"	08'31"
3.	08'56"	09'14"	09'50"	10'11"	14'39"	16'15"
4.	11'16"	11'43"	12'16"	12'49"	18'01"	20'07"



❖ **Erratzuko II. Mendi Duatloia**  
Mixel Aginaga izan zen garaile ekainaren 29an burututako Erratzuko II. Mendi Duatloian. Ondotik, Miguel Jose Ariztia eta Eugenio Ondarra sartu ziren. Emakumeen artean, Maika Ariztegi nagusitu zen. Junior mailan Miguel Mutuberria sartu zen Ion Villares eta Agustin Ariztiaren aitzinetik eta beteranoen artean Iñaki Madoz gailendu zen. Gibeletik, Santi Irazoki eta Jose Mikelarena sartu ziren.

❖ **Euskal Herriko lur gaineko sokatira txapelketa**  
Uztailaren Sean burutu zen Lesakan, 600 kilotan gizonnezkoan eta 560tan emakumeak. Gizonen artean Nuarbeoak nagusitu ziren eta emakumeen artean, berriz, Laulzikko Gaztedikoak.

❖ **Eskualdeko pilotariak Estatu Batuetan**  
Txaruta taldeko Iñaki Otxandorena ornoztarra, Kepa Leitza iturendarra eta Mikel Atxa elizondarra eta Goizuetako Umore-Ona taldean ari den Jexux M<sup>a</sup> Almandoz lesakarra Estatu Batuetan izan dira ekainean, era-kustaldi partidu batzuk eskainiz.



# AGENDA EGUNEZ EGUN

## BESTAK

### ELIZONDO

► **Uztailaren 24tik 28ra** Xehetasunak gehigarrian.

### ITUREN

► **Uztailaren 19tik 23ra** Xehetasunak 18. orrialdean.

### ELGORRIAGA

► **Uztailaren 24tik 28ra** Xehetasunak 19. orrialdean.

### ARANO

► **Uztailaren 24tik 28ra** Xehetasunak 19. orrialdean.

### ALKAIAGA

► **Uztailaren 24tik 25era** Xehetasunak 11. orrialdean.

## OSPAKIZUNAK

### ATHARRATZE

► **Uztailaren 20an eta agorrilaren 3an** Atharratze jauregian emanen dute aurtengo pastorala.

### SARA

► **Uztailaren 19 eta 20an** Zazpiak Bat dantza taldeak urteroko jaiak ospatuko du. Dantzak, otorduak eta eskulan erakusketak izanen dira, bertzeak bertze.

## ERAKUSKETAK

### ELIZONDO

► **Uztailaren 19tik aitzin** Tomás Sobrino margolariaren erakusketa ikusteko aukera izanen da Arizkunenean.

# AGENDA PRAKTIKOA

## JAKIN BEHARREKOAK

## *Trikitixa txapelketako kanporaketak abuztuan ospatuko dira*

Aitzineko alean erran bezalaxe, abuztuan ospatuko da Nafarroako Trikitilarien IV. Txapelketa. Hasiera batean apuntatzeko azken eguna uztailaren 10a bazen ere, epea iganderarte (uztailak 20) luzatu dute antolatzaileek.

Arantzako bestetan egitekoa da lehen saioa, abuztuaren 15ean, eta bi egun pasatuta Goizuetan izanen da bertze aurrekanporaketa, han ere herriko bestak direla probetuz.

Bi saio hauetan puntuaziorik altuena ateratzen duten zortzi bikoteek eskuratuko dute finalerako txartela, aurren Alsasuan ospatuko den finalerako.

Bikote irabazleak aukeratzeko, honako irizpide hauek hartuko dituzte kontutan epaimahaikideek: ejekuzioa, trebetasuna; piezaren zailtasuna; neurri eta eritimoa; espresibitatea eta plazarako jarrera; ahotsa eta kantua; pandero eta soinuariaren elkar hartzea; bertso eta koplén izaera (berritasuna, erranahia...).

Bertze zenbait zehaztapen ere egin nahi izan dute antolatzaileek: batetik, txapelketan parte hartzen dutenek

nafarrak izan beharko dutela (hala eskatu ezker agiriak aurkeztu beharko dira) eta finalean lau pieza jo beharko dituela bikote bakoitzak.

Gainera, megafonia eta mikroak alde aurretik jarriko direla jakinarazi digute, eta saioak irauten duen bitartean ezin izanen direla mugitu.

Diru arazorik egon ez dadin, partehartzaile guztiek dieta bat jasoko dute eguneko gastotarako.

Zerbaitetan laguntza behar izan ezker edota informazio gehiago eskatzeko telefono honetara dei dezakezu: 943-493007.

*Hasiera batean  
apuntatzeko azken  
eguna uztailaren 10a  
bazen ere, epea  
iganderarte  
(uztailak 20) luzatu  
dute antolatzaileek.*



Txapelketan parte hartzeko beharrezkoa da baserritarrez jaunzea.

## DISKAK



«Azkarate»  
Anje Duhalde  
ELKAR

Bakarkako zortzigarren lan hau Nafarroako Azkarate herrian grabatu du kantari arrangoiztarrak, eta hortik heldu zaio diskoari izena.

Betiko Anje Duhalderen haika kantu aurkituko ditugu bertan, John Hiatt izeneko abeslari estatubatuar baten bi bertso ere sartu baditu ere; Xabier Amurizak zenbait letra egin ditu eta Joxe Anjel Iriga-

raik «Bizitzari eman» kantua osatu du. Bertetik, zuzeneko soinua bilatu dute estudioetan tratatzekorakoan, efektu bereziak baztertuz, eta arras naturala gelditu da. Mikel Irazoki, Patrick Iturralde, Alberto Batiz, Joxean Goikoetxea, Bixente Iriarte eta Unzu musikariek esku hartu dute diskoan eta Anjel Katarain arduratu da grabaketa saioetaz.

### T'ai Chi Chuan, gogo eta gorputza bat eginez

Milaka urte dituen arte txinatarra dugu Tai Chi Chuan delakoa, eta pittaka-pittaka Europa osoan ezagun egiten ari dena.

Praktika hau ikasi eta irakasten ibili da azken hamar urteetan Xabier Belzunegi elizondarra, eta joan den urtean bertan Tai Chi ikastaroa eman zuen Elizondon. Nonbait ongi joan izanzen iazko esperientzia eta aurten errepikatzeko asmoa erakutsi digu. Hona hemen Tai Chi Chuan-aren inguruan Xabierrek igorri ditugun xehetasunak:

#### Gorputza harmonizatu

“Tai Chi Chuan-ak gogo eta gorputzaren harmonizazioa du helburu; gorputza tentsiorik gabe, bihotza bakan eta burua erne edukitzea, alegia.

Gaur egun izaten ditugun arazo gehientsuenek, gogo eta gorputzaren arteko etengabeko gatazkan dute oinarria. Gure gorputzak sentitu, irrikatu, desiratzen egiten du, baina aunitz gogoak sentimendu hoiek uka-

tu edo erreprimitu egiten ditu, ez jakinarena eginez.

Gorputzaren (sexualitatea, sentimenduak, beharrak...) eta gure gogo gidatzen

duten arauen arteko liskarrek gure energia xahutzen dute eta eritasunari bideak idekitzen dizkiote (estresa, muskuluetako espasmoak, zurruntasuna...).

*Tai Chi edo beste teknika psiko-fisikoetan arituz*

*(yoga, bio-energetika...), gogo eta gorputza elkarrekin egotera ohitzen ditugu.*



Xabier Belzunegi elizondarrak Tai Chi ikastaroa emanen du abuztuan.

Tai Chi edo beste teknika psiko-fisikoetan arituz (yoga, bio-energetika...), gogo eta gorputza elkarrekin egotera ohitzen ditugu. Mugimendu xuabe eta erlajatuaren bidez (zenbaitetan azkar eta gogorak), gero eta gehiago kontzentratzen ikasten du pertsonak. Giro honetan batasun egoera lortzen da, zeina gure egoera naturala den”.

#### Ikastaroa Lekarozen

Abuztuaren 1etik 15era egitekoa da Tai Chi ikastaroa, Lekarozko institutuko zelaietan, seguraski ere. Izena emateko telefono honetara deitzea bertzerik ez duzue: 580702.

## ERAKUSKETAK

### ELIZONDO

#### Uztailaren 5etik

**28ra** Domingo Etxandi kaikugile erratzuarren bizitzari buruzko bideoak ikusgai, eta Baztango artisauen lanak ere Arizkunenean ikusi ahal izanen dira. Asteburuetan ere zabalik.

## IKASTAROAK

### ELIZONDO

#### Tai Chi Chuan arte

txinatarrari buruz ikastaroa izanen da abuztuaren 1etik 15era, Xabier Belzunegiren eskutik. Izena emateko, deitu 580702 telefonora.

## GUARDIAKO BOTIKAK

061 Tfnora. deitu behar da

#### Uztailaren 14tik 21era

Etxalar, Sunbilla, Labaien, Elizondo (Lezaun).

#### Uztailaren 21etik 27ra

Arantza, Ituren, Elizondo (Iturralde), Goizuetara.

#### Uztailaren 28tik abuztuaren 3ra

Igantzi, NARBARTE, Elizondo (Lezaun), Urdazubi, Leitza, Goizueta.

## LIBURUAK



«Egile berrientzako literatur lehiaketak» IRUÑEKO UDALA

Iruñeko Udalak seigarren urtez atera ditu argitara Nafarroako idazle berrien hainbat lan; 96an narrazio laburren, olerki eta bertso paper lehiaketetan sarituak izan direnak sartu dituzte bilduma honetan, hain zuzen ere.

Juan Krutz Lakasta Zuberoren «Zazpi su gorri» eta Mikel Reparazen «Gondalen» aurkitu daitezke narrazio laburretan. Gontzal Agote Los Santosen eta Manu Go-

mezen poesiak, berriz, olerkien sailean. Bertso paperek ere badute lekua liburu honetan; Unai Agirre, Esteban Arozena goizuetarra eta Mikel Alzuart baztandarraren bertsoak saritu baitzituzten, jaz.

Azkenik, 1993an saritutako Kike Diez de Ultzurrin Sagalaren «Kalaberagain» lana berrargitaratuko dute aurten, aurreko batean akats tipografikoekin atera zutelakoz.

## ETXEBIZITZAK

- 101. Saldu
- 102. Erosi
- 103. Errentan emateko
- 104. Errentan hartzeko
- 105. Etxe konpartituak
- 106. Bertzelakoak

## GARAJEAK / LOKALAK

- 107. Saldu
- 108. Erosi
- 109. Errentan emateko
- 110. Errentan hartzeko
- 111. Bertzelakoak

## LURRAK / ORUBEAK

- 112. Saldu
- 113. Erosi
- 114. Errentan emateko

zein erraza den zure anuntzioa hemen jartzea...

Hegoaldetik deitzeko 948-1parraldetik 00-34-48

# 631188



...eta gainera, zure berri zonako etxe guzietan izanen dute!!

Sail honetan partikular, profesional eta merkatarien informazio eta zerbitzuen berri ematen da. **ttipi-ttapa**k ez du bere gain hartzen dohainik argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzukizunik.

- 115. Errentan hartzeko
- 116. Bertzelakoak

## ZERBITZUAK

- 201. Hargin/igeltseroak
- 202. Pintoreak

- 203. Elektrizistak
- 204. Iturginak
- 205. Zurginak
- 206. Mendi lanak
- 207. Garraioak
- 208. Bertzelakoak

## LANA

- 301. Eskariak
- 302. Eskaintzak

## IRAKASKUNTZA

- 401. Eskaintzak
- 402. Akademiak

## MOTORRA

- 501. Salerosketak
- 502. Tailerrak

## ANIMALIAK

- 601. Salerosketak
- 602. Emateko
- 603. Klinikak

## DENETARIK

- 701. Galdu / aurkituak
- 702. Salerosketak
- 703. Bertzelakoak

## HARREMANAK

## ETXEBIZITZAK

### 101 SALDU

**BERA.** Pisua salgai. Baina eta sukalde moblezta-tua. Eguzkitsua. ☎ 630508.

**IRURITA.** Etxea salgai bere baratzearekin. ☎ 599232.

**LESAKA.** Baserria salgai, bere lur eremuarekin. ☎ 948-978317.

## ETXEBIZITZAK

### 104 ERRENTAN HARTU

**BERAN** edo **LESAKAN** pisu bat errentan hartuko nuke. ☎ 452494 (gaueko 9,30etatik 10etara).

## GARAJEAK/LOKALAK

### 107 SALDU

**LEITZA.** Eskola ondoko etxeetan bajera bat salgai. ☎ 510167.

**BERA.** Bajera salgai, Eztegarapasealekuko 21.ean. 260 m<sup>2</sup>. ☎ 630084.

## GARAJEAK/LOKALAK

### 108 EROSI

**LEITZA.** Garaje edo lokala erosi edo errentan hartuko genuke. ☎ 610891.

## GARAJEAK/LOKALAK

### 109 ERRENTAN EMAN

**Baserri bateko bajera** errentan emanen nuke, al-mazena edo tailer txiki bat

jartzeko egokia. ☎ 514308 (gauez).

## LURRAK/ORUBEAK

### 112 SALDU

**SUNBILLAN.** 20 m<sup>2</sup>ko iratzelaia salgai. Metro karra-tua 100 ptatan. ☎ 580228.

## ZERBITZUAK

### 205 ZURGINAK

## Juanjo

Zurgin lanak orokorrean  
Moble zaharrak  
konpontzen ditugu  
• LESAKA •  
☎ 989.800249

## LANA

### 301 ESKARIAK

**Euskarazko titulua** duen euskal filologiako ikasle batek euskarazko edo OHOko edozein ikasgaietako klaseak emanen lituzke. ☎ 580439 (edozein ordutan).

**Neska batek** Lesakan etxe-ko lanetan edo haurrak zaintzen lan egingen luke. ☎ 631188.

**Neska batek** haurrak zaindu eta etxe-ko lanak egingen lituzke, kanguro gisa ere lan egingen nuke. ☎ 635081.

**Emakume batek** Doneztebe edo Elizondo aldean etxe-ko lanak egingen lan egingen luke. ☎ 450923 (deitu

arratsetan).

**Bortzirietan,** mendi garbitzen edo plantazioak egingen lan egingen nuke. ☎ 637853.

**Neska bat** etxe-ko lanetan edo haurrak zaintzen ariko litzateke. 12 urteko esperientzia. ☎ 627513 (Rosa).

**Haurrak zainduko** nituzke Bera edo Lesakan, udan edo kurtsoan zehar. Esperientziarekin. ☎ 631040.

## LANA

### 302 ESKAINTZAK

**Sukaldean esperientzia** duen pertsona kontratatu nahi dugu Leitzako taberna batean abuztuaren 10etik 16ra lan egiteko. ☎ 610909 (Bernardo).

**AU-PAIR bezala** Irlandara joan nahi duen pertsona baten bila gabiltza, han estudiantu eta lan egiteko aukerarekin. Abuztutik aurrera, nahi hainbertze denbora. ☎ 630946.

## MOTORRA

### 501 SALEROSKETAK

## NISSAN BERABI tailerrak

Bigarren eskuko kotxeak:  
Sunny 2.000 D, NA-AN  
Nissan Patrol, NA-P  
Clio 1.200, NA-AF  
Nissan Patrol Top-Line



☎ 63 11 57 • BERA

Stockean dauden ibilgailuen  
**LIKIDAZIOA**

Prezio bikainak:  
50.000 ptatik goiti

## Dieselak

Ford Fiesta 1800, 3 ate, 91koa.

## Gasolina

Ford Orion 1.8 Ghia, 93koa.

Ford Orion 1.4 4 atekoa.

Rover Montego 2.0 4 ate, 90koa.

Opel Ascona 1.8 5 ate, 86koa.

**Renault Express 1.6** Dieselak salgai, komertzial erakoa. 130.000 pezeta. SS-AL. ☎ 630047 (Mikel, eguerdi edo gauez).

## Audi VW SAMPI

Bigarren eskuko autoak,  
furgonetak, 4x4ak  
erosten dira.

☎ 45 03 54 • DONEZTEBE

**Rover 216** salgai, SS-AC eta 100.000 km. Egoera ezinhobean. ☎ 630047 (Mikel, eguerdi edo gauez).

## GANIX Tailerrak

Iturlandeta, 9 • ☎ 630669 • BERA

IBILGAILUEN MEKANIKA  
ETA ELEKTRIZITATEA  
FIAT Zerbitzua

**Citroen BX TD** salgai, ABS, alarma eta extra ugariarekin. NA-V, hagitz merkea. ☎ 929-960110.

**Renault 21 TD** salgai. SS-AB, egoera onean. ☎

## MENDAUR MOTOR

☎ 450333 • DONEZTEBE

Bigarren eskuko kotxeak:

- Ibiza • Kadett 1.8i • Golf TD
- Corsa eta Clio Dieselak.
- Suzukiak: Samurai eta Vitara

630618.

**Ford Orion 1.6 CLX** xuria salgai. NA-AB matrikula eta oso egoera onean. ☎ 630-946 (7,30etatik 8,30etara).



AUTO BERRIEN  
ERAKUSKETA ETA SALMENTA  
☎ 63 06 23 • BERA

**Seat Ibiza Diesel NA-V** (9 urtekoa) salgai, hagitz merke (20 mila duro). ☎ 451855.

**Honda Dominator** motoa salgai, egoera onean (39.000 km.). ☎ 631481.

**Traileko motoa** salgai, Gilera Dakota 500, 13.000 km. eta hagitz ongi dago. ☎ 943-627748 (Agustin).

## ANIMALIAK

### 601 SALEROSKETAK

**Behor bat** bere zaldikoarekin salgai Leitzan. Lanean hezia. ☎ 397004 (Mikel, gaueko 9etan).

**Basurde ehiziko zakurra** salgai, sabueso eta podenko arrazakoa eta 8 hilabetekoa. ☎ 634066.

**Bi behi grisak** salgai, be-



ren umeekin. ☎ 637472.

Collie arrazako txakurkumeak salgai, prezio onean. ☎ (943) 627158.

Fox Terrier arrazako zakurkumeak salgai, pedigriarekin. ☎ 909 455550.

Ehizi zakurra salgai, Bruno Jura arrazakoa eta erbitan dakiena. ☎ 450473.

Collie arrazako zakurkumea salgai. ☎ 453207 (eguerdian eta arratsean).

**ANIMALIAK**

**602 EMATEKO**

Pekines arrazako 3 pekines zakur oparituko genituzke. ☎ 615084.

**DENETARIK**

**702 SALEROSKETAK**

Moto-soldadora salgai, "Gasolin mase 130" markakoa. Egoera onean. ☎ 510265.

Bixkien kapota kotxea salgai, Arrue markakoa, ia berria. ☎ 630107.

Egurrezko sukalde-kalefaktorea salgai. ☎ 631422 edo 450242.

**HARREMANAK**

**801 AGURRAK**

**Donostiako Arantxari:** Zergatik ez dugu zure urtebetetzea zure etxe ondoan dagoen etxe polit horretan ospatzen? Kokotxea in action.

**Mondraueko Mimari:** Ilea mozteko makina hori ekarri. Zorionak kari. Kokotxea in action.

**Zubietako Ainhoari:** Ze pottoki! Mojitora pasatuko zara? Kokotxea in action.

**Zubietako Ion Mikeli:** Ea jai hauetan bizirik ateratzen zaren (deus apurtu gabe).

Zorionak. Kokotxea in action.

**Irritako Xabier Arraztoa eta Elizondoko Jabi Eletari:** Oso onak zaudete. Hiru nesken partetik.

**Aurtizko Ana Alzuriri:** zorionak ekainaren 12an 13 urte bete dituelako. Zorionak Sunbillako lagun eta lehengusuen partetik.

**Leitzako Saioa Diosdadori:** zuk asmatu Saio. Zure A gelan aurre xamarrean nago. J.ren partez.

**Elizondoko Vanesa E.ri:** Ez izan hain kreida.

**Zugarramurdiko Garbiñe Mihurari (sorgiña):** zorionak, uztailaren 1ean 16 urte bete dituelako. Urdazubiko lagunak. la txanpain

botil batera gonbidatzen dituzun! Zorionak.

**Urdazubiko Ainhoa Mihurari:** Zorionak uztailaren 18an 16 urte beteko dituzulako. Ea txanpain botoil batera gonbidatzen gaituzun. Zure koadrilako lagunak.

**Berako 'Nano'ri:** eskerrik asko bertze aukera bat

emateagatik. Muxu bat.

**PENSIO PLANAK**


**Nekazari, abeltzain**

**Zure etorkizuna segurtatzea gure planetan sartzen da**

**Nafarroako Gobernuaren dirulaguntzarekin**  
Nafarroako Rural Kutxan etorkizuneko planik hoberena dugu zuretzat: nekazari eta abeltzaintzat bereziki egindako Pentsio Plana, Nafarroako Gobernuaren dirulaguntzarekin.

**Neurrira egina**  
Zure neurrira egindako Plana. Zure etorkizuna segurtatzea gutiago kostako zaizu.

**Abenduaren 3a arte**  
Zatoz Rural kutxara, informa zaitetz eta aukeratu zure Pentsio Plana.

 **NAFARROAKO RURAL KUTXA**

Argazkiak berreskuratu nahi badituzue, bidali zuen helbidea eta selloa ere, edo nahiago baduzue pasatu gure bulegotik.



**Nerea Mindegia**  
Eletak uztailaren 2an bete ditu 6 urte. Zorionak eta muxu haundi bat. Maider eta gurasoen partez.



**Belen Zubieta Manterola**  
Iesakarrak 32 urte bete ditu uztailaren 31n. Zorionak zure familiaren partez.



**Alejandro Zubieta Tapia**  
Iesakarrak 61 urte beteko ditu uztailaren 24an. Zorionak zure familiaren partez.



**Mª Jose Zubieta Manterola**  
Iesakarrak 33 urte bete ditu uztailaren 13an. Zorionak zure familiaren partez.



**Amaia Inda Jorajuria**  
doneztebarrak abuztuaren 12an beteko ditu 2 urte. Zorionak. "Zu zara gure puskka".



**Miren Inda Jorajuria**  
doneztebarrak 4 urte beteko ditu uztailaren 29an. "Zu zara gure puxka". Zorionak.



**Estitxu Lopez Callesek** 19 urte beteko ditu uztailaren 19an. Ez uste urrutu zaudelako ez diguzula gonbitu behar. 3 mosketero eta familia.



**Andrea Escagües Martiarena**  
beratarrak urtea beteko du uztailaren 20an. Zorionak Aitor eta Jaberren partez.



**Ion Ander Bengoetxea Azkaraga**  
igantziarrak bi urte bete ditu uztailaren 10ean. Zorionak familia guziaren partez.



**Itziar Mitxelena Gutierrez**  
igantziarrak 17 urte bete ditu ekainaren 16an. Zorionak zure laguneren partez.



**Jon Narbarte Etxegia**  
goizuetarrak 9 urte bete ditu ekainaren 23an. Aurrera pilotari, eta txintxoia izan. Etxekoeren partez.



**Milagros Muñoa Otxoteko**  
Iesakarrak 21 urte bete ditu uztailaren 2an. Zorionak alaberen partez.



**Mª Jose Zozaiá Errandoneak**  
uztailak 14an bete ditu urteak. Zorionak laneko laguneren partetik.



**Arraiozko Juana**  
zorionak uztailaren 9an urteak bete dituelako. Arraiozko familia, eta bereziki Inigo eta Izaskun.



**Jon Guruchet Barroso**  
Iesakarrak 8 urte bete ditu uztailaren 15ean. Zorionak Mikel anaia eta familiaren partez.



**Patxi Castillo Graziarena**  
beratarrak 5 urte beteko ditu uztailaren 28an. Zorionak atxa eta amaren partez.



**Eugenio Mihura**  
Ieitzzarrak 22 urte bete ditu ekainaren 24an. Muxu haundi bat Rifa-ren partez.



**Arkaitz Lasarte**  
Ieitzzarrak 20 urte bete ditu ekainaren 28an. Muxu haundi bat Kler-en partez.



**Iñaki Zabaleta**  
Ieitzzarrak 22 urte beteko ditu uztailaren 20an. Muxu haundi bat Txori-ren partez.



**Igor Irungarai**  
Ieitzzarrak 22 urte bete ditu uztailaren 2an. Muxu haundi bat Pamela Anderson-en partez.



**Jon Oronoz**  
Ieitzzarrak 22 urte bete ditu uztailaren 15ean. Muxu haundi bat Iratiren partez.



**Mari Jose Zabala** 19 urte bete ditu ekainaren 30an. Zorionak, bere senarra, senide, guraso eta etxeko guzien partetik.



**Uxue Bastez-rikka Arenaza**  
aretxabetaIarrak uztailaren 10ean egin ditu 2 urte. Zorionak ataxki, izeba eta lehen-gusuen partez.



**Idoia Perurena**  
urdazubitarak 18 urte bete ditu uztailaren 11n. Zorionak koadrilaren partez eta espero dugu afaltzera gonbidatzea.



**Ainhoa Antxordoki Bereau**  
igantziarrak 20 urte bete ditu uztailaren 10ean. Zorionak familia eta Julenen partetik.



**Olaia Matxi-kote Sein**  
igantziarrak 5 urte beteko ditu uztailaren 21ean. Aunitz urtez amaxi, Xabat eta gurasoen partez.



**Xabier Agesta Almandoz**  
arantzarrak 14 urte bete ditu ekainaren 28an. Zorionak koadrilakoen partetik.



**Ixone Telletxea Uranga**  
beratarrak 7 urte beteko ditu uztailaren 21ean. Zorionak familiaren partez.



**Eneko Telletxea Arburua**  
etxalartarrak urteak beteko ditu uztailaren 17an. Zorionak eta muxu bat familiaren partez.



**Teresa Rojo Larralde**  
Iesakarrak uztailaren 26an eginen ditu 3 urte. Zorionak gurasoen eta Olatzen partez.



**Tibur Dagerre Mitxelena**  
elizonarrak 33 urte bete ditu uztailaren 11n. Zorionak zure koadrilaren partez.



**Urko Mitxelena Larralde**  
doneztebarrak 3 beteko ditu uztailaren 18an. Muxu bat zure gurasoen partez. Zorionak.



**Belen Urrutia Hualde**  
elizonarrak 27 urte egin ditu uztailaren 5ean. Zorionak zure koadrilaren partez.



**Pedro Bertiz**  
etxalartarrak 27 urte eginen ditu uztailaren 20an. Zorionak familiaren partez.



**Maria Dolores Anglade**  
etxalartarrak 37 urte bete ditu uztailaren 7an. Zorionak familiaren partez.



**Arantza Berroeta**  
etxalartarrak uztailaren 15ean 15 urte bete ditu. Zorionak familiaren partez.



**Bautista Telletxea**  
beratarrak urteak beteko ditu uztailaren 26an. Zorionak Oier eta Hegoaren partez.



**Goizuetako Naiarari**  
zorionak. Hamaika urte dagoeneko. Hara! Zure gurasoak eta ahizpa.



**Beñat Apezte-xtea Elizondo**  
goizuetarrak bost urte beteko ditu uztailaren 27an. Zorionak aita, ama eta Josuren partez.



**Begoña Olagarai**  
zugarramurdiarrak 29 urte beteko ditu uztailaren 22an. Zorionak zure senarraren partez.



**Saioa Mir Fagoaga**  
beratarrak 13 urte beteko ditu uztailaren 14an. Zorionak eta muxu haundi bat familiaren partez.



**Ekaitz Astibia Arregi**  
Ieitzzarrak 7 urte egin ditu uztailaren 16an. Zorionak guraso eta Katixaren partez. Muxu bat.



**Paula San Miguel Galañena**  
arrazatearrak 2 urte eginen ditu uztailaren 19an, eta **Mila** bere ama oieregiarrak, hogeitapiku egun berean. Zorionak eta aunitz urtez familia eta laguneren partez.



**Berako Irantzu eta Maddi Mikelarenari**  
zorionak, uztailaren 20an urte bat eginen baitute. Aunitz urtez, ataxki-amaxi, osaba-izeben eta gurasoen partez.



**Anttonita Ibarra Irureta**  
sunbildarrak uztailaren 12an bete ditu urteak. Urte askotarako, Iñaki eta Aratzen partetik.



**Jose Martin Rekarte Korta**  
hondarribiarrak uztailaren 14an bete ditu urteak. Urte askotarako Iñaki eta Aratzen partetik.



**Maialen Ianzi**  
berroetarrak uztailaren 13an egin ditu lau urte. Zorionak bere familia guziaren partez.



**Ohiane Antuñeta Zelaietak**  
uztailaren 16an bete ditu 2 urte. Zorionak bere aita eta amaren partez.



**Elizondo.**

• Saskaitz Plazan, pisua salgai.  
9.000.000.



**Etxalar.** • Herritik 10 Km.tara, baserri eder bat bere terrenoarekin.



**Bera.** • Matxako ostatuaren gaineko bigarren pisua salgai, erabat berritua.  
12.000.000

**Beran edo Lesakan** pisuak hartuko genituzke errentan, konfidantzazko lagunentzat, ongi ordaintzeko.



**ADOS**

Julian Izura Nuin

Telefonoak: 451841 • 908. 77 86 53 • Parrokia 9, bajeran  
**DONEZTEBE**




**Doneztebe.** • Aparanen 75m<sup>2</sup>ko pabilioi industrialia salgai. Azkena.



**Narbarte.** • Pisua salgai, bere baratzearekin.



**Elgorriaga.** • Pisua, garaje eta ganbarearekin salgai. 13.000.000 negoziagarriak.



**Elgorriaga.**

• Etxe adosatua salgai.  
13.500.000.  
Aukerakoa.



**Bera.** • Lau logelako pisua salgai, kanpoaldera begira. 15.000.000. Iggailua eta trasteroa.



**Mugairi.** • Pabilioi industrialak salgai. 43.000 pta/m<sup>2</sup>tik goiti.



**Bera.**


• Eguzki kafetegia salgai.  
Gaineko etxeo etxebizitzak ere bai.



**Narbarte.** • Pisua salgai. Haritezko sukaldea eta berogailua. 7.700.000 Pta.



**Mugairi.** • Pisu hagitz eguzkitsua salgai. 8.500.000.



**Goizueta.**

• Borda salgai, ura eta argiarekin.



**ETXALARKO BENTA. S.L.**

Iruña-Irun errepidea, 70. km  
Etxalar (Nafarroa)  
Tel.: (948) 63 50 00  
Faxa: (948) 63 52 63

- 40 logela oso (bainua eta TB)
- 250 lagunendako bankete jangela
- Jangela pribatua
- Karta, eguneko menua eta plater konbinatuak
- Ostatua



*Besta  
Zoriontsuak*



**GANI** NAFARROAKO AURREZKI KUTXA